


# Eusko Jaurlaritzaren gizarte-sareetako erabileren eta estiloaren gida



Sarrera

Eskaera egiteko prozedura

Hizkuntza-erabilerak

Lizentzia irekiak

Facebook

Twitter

Tuenti

Linkedin

YouTube

Flickr

Slideshare

Delicious

Geoposizionamendua

Blogak


Eduki-kudeatzaileak

Oinarrizko hiztegia

I. eranskina: bibliografia

II. eranskina: Web 2.0ko tresnetan eta gizarte-  
sareetan alta emateko eskaera

III. eranskina: gizarte-sareetako irudi grafikoa



### Gizarte-sareetako erabileren eta estiloarengidari buruz

*Gizarte-sareetako erabileren eta estiloaren gida* honek sarrera bat du hasieran, eta, bertan, gizarte-sareen gaur egungo unibertsoaren ikuspegi orokor bat ematen da, eta Eusko Jaurlaritzak gizarte-sareetan duen presentziaren testuingurua azaltzen da. Horrez gain, presentzia horren oinarriak jartzen dira, bai eta Eusko Jaurlaritzako langileek gizarte-sareetan duten presentziaren oinarriak ere.

Gizarte-sareetan kontuak eskatzeko prozedura ere azalduko dugu, eta adieraziko dugu zer arau eta hizkuntza-erabilera hartu beharko ditugun kontuan.


Eusko Jaurlaritzak presentzia korporatiboa duen gizarte-sare bakoitzari buruz kapitulu bat egin dugu, bai eta interes sektorialagatik sailen batentzat interesgarriak izan daitezkeen gizarte-sareei buruz ere.

Kapitulu bakoitzean honako hauek izango ditugu: dagokion gizarte-sarearen sarrera bat, konfigurazioari eta edukari buruzko alderdi garrantzitsuenak, eta gida labur bat gizarte-sare horretan moldatzeko oinarizko jarraibideekin.

### Zer dira gizarte-sareak?

Interneten bidez elkartzen diren eta elkarizketa-bideak erabiliz informazioa, jakintza eta iritziak partekatzen dituzten erabiltzaile-komunitateen artean gertatzen diren jarduerak, praktikak eta portaerak dira gizarte-sareak. Web-aplikazioak dira, eta era askotako edukiak (testuak, argazkiak, bideoak edo audioak) erraz sortu eta transmititzeko balio dute. Elkarrekintza horri web 2.0 deitu zaio, 90eko hamarkadako Internet estatikoari kontrajartzen zaiolako.

Herriarrek berdinetik berdiner elkarrekintzan aritzeko modu berri bat dira gizarte-sareak, eta ohiko komunikabideen eskaintzaz gainera, aukera ematen dute, bitartekariarik gabe, komunikazioak, aurkezpenak, laguntzak, lehiaketak eta abar argitaratzeko, bai eta berehalako feedbacka lortzeko ere. Horregatik, sailen komunikazio-estrategiaren zati izan beharko lukete.



## Eusko Jaurlaritzaren gizarte-sareetan

Interneten gizarte-sareak erabiltzearen ondorioz, gure eremu pertsonalean eta profesionalean komunikatzeko dugun era aldatzen ari da.

Eremu profesionalari dagokionez, egungo egoerak adi-men kolektiboko formetara garamatza, eta forma horiek erakundeak aldatzen ari dira: alde batetik, pertsonak elkarrekin konektatzeko gaitasun-maila handia dutelako, eta, bestetik, sortutako informazioa kudeatzeko aukera asko ematen dituztelako.

Gainera, kontuan izan behar dugu herritarren rola aldatu egin dela: orain informazioa modu pasiboan kontsumitzen jarraitzen du, baina informazioa sortu ere sortzen du, eta Interneten bidez partekatzen du; beraz, prosumitzaile bihurtu da (produzitzailea eta kontsumitzailea aldi berean). Eta, gobernu gisa, jakintzaren zirkulazio askea erraztu behar dugu, gardentasuna sustatuz, herritarrekin batera demokrazia deliberatzaile eta parte-hartzaileago batera aurrera egiteko.

Gizarte-sareetan gailu mugikorren bidez sartu ahal izateak edozein tokitatik parte hartu ahal izatea bermatzen du, eta, zenbat eta jende gehiago erabili, orduan eta erabilera gehiago izango dituzte. Hortaz, plataforma bikainak dira hobetzeko eta berritzeko.

Herritarren eta gobernantzako beste eragile batzuen parte-hartzea eta inplikazioa errazteaz gain, gizarte-sareek Administrazioaren bi noranzkoko komunikazio-bideak (tele-fono bidezko arreta, presentziala, adibidez) osatzen dituzte, aurrez adierazi dugun moduan. Jaurlaritzaren atariek gure zerbitzuei buruzko informazio eguneratua emateko balio dute, eta gizarte-sareek, berriz, honetarako:

- Berehalako erantzunak ematen dizkiete erabiltzaileei, eta, gainera, ematen den informazioa erabilgarria izan daiteke egoera berean dauden beste pertsona batzuentzat (denbora eta ballabideak aurrezten dira, Interneten gertatu ohi den moduan). Gertukoagoa ere izaten da, erabiltzailearen testuinguru pertsonalean baikaude.
- Web edo atari korporatiboetara bideratzen dituzte era-biltzaileak (edo bide ofizialek sortzen dutena bezain informazio fidagarria ematen duten beste ballabide batzuetara), informazio ofiziala zabaltzeko.
- Erabiltzaileen gaikako sareak sortzea errazten dute, eta erabiltzaileek, era berean, oinarriko jakintzak eta jakintza osagarriak sortzen dituzte, erakundeak haien interesak ezagutu eta kontuan hartu ahal izateko.

Eusko Jaurlaritzaren *Gizarte-sareen erabileren eta estilo-aren gidak* jarraibide komun batzuk ezartzen ditu, Eusko Jaurlaritzak gizarte-sareetan duen presentzia homogeneoa izan dadin. Tresna dinamiko bat da, eta edonork adieraz dezake bere esperientzia [irekia@ej-gv.es](mailto:irekia@ej-gv.es) helbidera idatziz, <http://facebook.com/GobiernoVascorekia> Irekiaren Facebookeko horman mezu bat argitaratuz, edo tuit bat argitaratuz @Irekia Twitter profilean edo #irekia etiketarekin.

Harremanetarako eta parte-hartzerako espazio horietan edozein zuzendaritza, zerbitzu edo markaren kontuak eta profilak (eta, beraz, baita Eusko Jaurlaritzak gehiengo parte hartzea duen enpresa publikoenak eta berezko lege-nortasuna duten erakundeenak ere) irekitzeko prozedurak azaltzen ditu Gidak.

Kanal horietan Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza koofizialak erabiltzeko zenbait jarraibide ere baditu.

Horrez gain, gizarte-sareen tresnak zerrendatzen ditu, haietako bakoitzaren erabilerak eta haietan presentzia edukitzearen helburuak adierazten ditu, gomendioak ematen ditu presentzia egokia eta emankorra izan dadin, eta tresna bakoitzean komunikazio-estilo egokiena erabiltzeko irizpideak azaltzen ditu.

## Hasierako orrira



Justizia eta Herri Administrazio Saileko Herriarrei Arreta Emateko Zuzendaritzak irekitze-prozedura koordinatzen du. Estandar guztiak betetzen direla bermatu ondoren, Zuzendaritzak oniritzia ematen du, eta Lehendakariaren Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzendaritzak erabiltzaile-kontuak eta edizio-inguruneen profilak ematen dizkio unitate eskatzaileari, irudi korporatiboarekin batera (avatarrak, atzeko planoko irudiak eta beste elementu batzuk).

Bestalde, Irekiak gizarte-sareetako tresna bakoitza era eraginkorrean kudeatzeko gomendatzen diren aplikazioen zerrenda eguneratua du (<http://delicious.com/irekia/bundle:apps>).

### Eusko Jaurlaritzaren gizarte-sareetako presentziaren oinarrian dauden printzipioak

Herriarrekin elkarrekintzan aritzeraoan, Jaurlaritzaren eta hura osatzen duten profesionalen balioekin bat datorren giroa erabili behar da beti:

- **Zerbitzu publikoa.** Gure izateko arrazoia da. Gizarte-sareen bidezko komunikazioak komunikazio presentziala bezain eraginkorra edo eraginkorragoa izan behar du, eta, era berean, efizienteago izan behar du eta emaitza hobekak eman behar ditu, askoz baliabide gehiago erabili gabe. Herriarri entzuteko eta ahal den guztian laguntzeko prest gaudela erakutsi behar dugu une oro, bai eta haren zalantza guztiei konponbideak emateko prest gaudela ere.
- **Gardentasuna.** Gizarte-baliabideen oinarizko araua da. Den moduan erakutsi behar da erakundea, naturaltasunez.
- **Kalitatea.** Kalitateko zerbitzuak eman behar zaizkie herritar guztiei, ezarrita dauden protokoloak jarraituz edo hobetuz.
- **Erantzunkidetasuna.** Nor ordezkutzen dugun eta zer orientaziorerkin, nola eta non komunikatu behar dugun jakitea. Kontuan hartu behar dira gizarte-sareen bizikidetzaren arauak eta erabilera-arauak.
- **Parte-hartzea.** Geureak balira bezala hartu behar dugu parte herritarren ekimenetan, eta gainerako herritarren parte-hartzea ere sustatu behar dugu.
- **Jakintza irekia.** Jakintza intelektualaren ikuspegi berri bat erabili behar dugu, Administrazioak sortutako datu eta edukietatik abiatuta aberastasuna sortu ahal izateko.

Gure elkarrizketa-tonuak hurbilekoa eta atsegina izan behar du beti. Jaurlaritzak parte hartzen duen gizarte-sareetan, komunikazioa herritarrei bideratuta egon ohi da. Beraz, entzun egin behar diegu pertsonari, eta erantzun egokiak eman behar dizkiegu haien beharrei, gune horietako erabiltzaileek senti dezaten gure presentzia ez dela intrusiboa, baizik eta berdinetik berdinerari ari garela parte hartzen elkarrizketan.

Gizarte-sareetan parte hartzen dugunean, kontuan izan behar dugu herritarren eremuan gaudela, erabiltzaile bakoitzak bere iritzia duela, eta iritzi horiekin ados ez bagaude ere, errespetatu egin behar ditugula. Gure presentziaren helburua ez da iritzi horiek aldatzea edota gureak inposatzea, baizik eta herritarrei entzutea eta haiekin partekatzea eta beren espazioan hitz egitea.

Printzipio orokorraren arabera, profil korporatiboetatik ezin dira iritzi pertsonalak eman, eta linea editorialak webgune ofizialarenarekin bat etorri behar du.

Beraz, profil pertsonalak eta profil korporatiboak (zuzenda-ritzenak, zerbitzuak, markak...) bereizi behar dira. Profil pertsonalak norberaren izenean daudenak dira, eta pertsona bakoitzak askatasuna du presentzia izateko eta bere kontua izateko gizarte-sareetan. Aitzitik, eta logikoa den moduan, Administrazio Publikoaren kontuek profil instituzional bat izan behar dute.



## Erabilera-gomendioak Eusko Jaurlaritzako langileentzat

Gizarte-sareek hainbat eta hainbat aukera ematen dituzte, eta Eusko Jaurlaritzan lan egiten duten pertsonak arduraz erabil ditzakete. Instituzioaren kide direnez, pertsona horiek kontuan hartu beharko lituzkete zenbait gomendio erabilera egokia bermatzeko, baita gizarte-sareetan beren profil pertsonaletatik ari direnean ere.

Gizarte-profiletan adierazten diren iritzia pertsonalak dira, eta ez zaizkio inolaz ere erakundeari egotziko. Langileek eskubidea dute egoki iruditzen zaizkien gaietara buruz beren iritzia edo ikuspegiak askatasunez adierazteko.

Ematen dugun zerbitzuarekin arazorik sor ez dadin, zenbait ekintza gomendatzen ditugu:

- Gizarte-sareetan presentzia duten Eusko Jaurlaritzako langileek askatasunez esan dezakete Eusko Jaurlaritzako langileak direla.
- Erakundearena ez den helbide elektronikoa erabili behar da Eusko Jaurlaritzakoak ez diren orrietan kontu pertsonalak erregistratzeko, informazio hori gaizki interpreta baitaiteke, edo nahi ez dugun helburuetarako erabil baitaiteke. Gomendio horrek Twitterri eta Facebooki egiten die erreferentzia bereziki.
- Ezin da Eusko Jaurlaritzaren eta ematen dituen zerbitzuen ospea kalte dezaketen ekintza edo mugimenduetan parte hartu.
- Gardentasunez eta legedia errespetatuz jardutea komeni da.
- Ezin dira mespretxuzko iruzkinak edo iruzkin iraingarriak argitaratu Interneten.
- Lanaldian zehar gizarte-sareak erabiltzen badira, ongi era-biltzea komeni da, eta ematen den zerbitzua hobetzeko betiere.
- Gogoan izan sarean egiten diren jarduerak erregistratuta geratzen direla denbora mugagabea, eta edozein erabil-tzaile sar daitekeela haietara.

## Gizarte-sare motak

- **Bertikalak.** Erabiltzaile guztiak eduki-mota edo gai jakin baten inguruan mugitzen dira.
  - Argazkiak: Flickr, Picasa...
  - Bideoak: YouTube, Vimeo, Qik, Blip.tv...
  - Musika: Blip.fm, Last.fm, Spotify...
  - Liburuak: aNobii, Librofilia...
  - Aurkezpenak edo dokumentuak: SlideShare, Scribd...
  - Markatzaile sozialak: Delicious, Menéame, AupaTu...

Oro har, Eusko Jaurlaritzak era horretako sareetan duen presentzia multimedia-materiala gordetzeko izango da.

- **Horizontalak.** Era guzti-tako edukia partekatzeko era-biltzen diren harreman-sareak dira:
  - Harreman-sareak: Facebook, Tuenti, Myspace...
  - Profesionalak: LinkedIn, Xing...
  - Microblogging: Twitter, Tumblr, Posterous, Plurk, Picotea...




## Beste kontsiderazio batzuk

Gizarte-sareen gaur egungo aplikazio gehienek ez dute ongi funtzionatzen Internet Explorer 6.0 nabigatzaile korporatiboan. Beraz, nahitaezkoa izango da Mozilla Firefox nabigatzailea instalatzea, eta hurrengo kapituluan adieraziko dugu instalazioaren eskaera egiteko prozedura. Nabigatzailearen aplikazioetako batzuk ere instalatu beharko ditugu, edukiak kudeatzeko balioko baitigute; dagokien kapituluetan landuko ditugu aplikazio horiek.

Hasierako orrira



## Eskaera egiteko prozedura




1. Eskatzailea Web Zerbitzuarekin harremanetan jarriko da, ekimena jakinarazteko eta helburuak eta hautatutako gizarte-zerbitzuak zehazteko.  
Horrez gain, eskaera-inprimaki labur bat bete eta bidaliko dio Web Zerbitzuari (l. eranskina).
2. Web Zerbitzuak ekimena aztertu eta onartutakoan, Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzendaritzarekin (Lehendakaritza) harremanetan jarriko da, hautatutako tresnetan alta emateko.
3. Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzendaritza arduratuko da gizarte-sareak gizarte-sareen gidaren arabera konfiguratzearaz (atzeko planoak, avatarrak, nomenklaturak...), eta Gida honetako «Eduki-kudeatzaileak» atalean gizarte-sareen kudeaketarako gomendatutako tresnak emateaz eskatzaileari.<sup>1</sup>

## Hasierako orrira



<sup>1</sup>kudeaketa-tresnetako batzuk erabiltzeko beharrezkoa da Firefox nabigatzailea edukitzea. Horretarako, eskaera bat egin behar zaio EULiEri, instalazioez arduratzen den atalari, zehazki, Firefox nabigatzailearen bertsio homologatua instala dezaten.



Jauriaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harrema-netarako zuzendariaren uztailaren 2ko **9/2008 Ebazpenak**,<sup>1</sup> Jauriaritzaren Kontseiluak «IV. Plangintzaldirako (2008-2012) Eusko Jauriaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartzeko» hartutako erabakia argitaratzeko denak, Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak ezartzen ditu Eusko Jauriaritzarako.

### Hizkuntza ofizialak erabiltzeko arau orokorrak

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek nahitaez bete beharko dituzte arau hauek.

Arauk Administrazioaren harreman ofizialetan eta protoko-lozko harremanetan aplikatuko dira, eta ez harreman pribatu-tuetan edo ez-formaletan.

### Komunikazio elebidunetan euskara nabarmentzeko neurriak

Euskararen egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta, Eusko Jauriaritzak ekoiztako komunikazioetan euskara nabarmentzeko neurriak hartuko dira. Horretarako, bi estrategia erabil daitezke gutxienez:

- **Kokapena.** Hitzen kasuan, euskaraz agertzen direnak aurrean edo ganean jar daitezke; zutabeak badira, ezkerrekoa euskarazkorako erabiliko da; eta, orriak badira, beriz, eskuinekoa euskarazkorako erabiliko da.
- **Tipografia.** Ez dugu ahaztu behar letra-tipoa edo tamaina erabil daitezkeela euskarazko testua nabarmentzeko.

**Komunikazio idatziak:** dokumentazioaren igorlea Eusko Jauriaritza bada, komunikazioa bi hizkuntza ofizialetan edo euskaraz egingo da.

### Hizkuntza ofizialen erabilera eta itzulpen-irizpideak

Azaroaren 24ko 10/1982 Legeak (Euskararen erabi-lera normalizatzeko oinarizkoa) ezartzen duenez, Adminis-trazioaren komunikazioak bi hizkuntza ofizialetan egin behar dira, baina ez du adierazten itzulpena erabili beharko denik nahitaez horretarako. Nolanahi ere, euskararen egoera soziolinguistikoa onduz, testu gehienak gaztelaniaz idatzi dira gero euskarara itzultzeko. Argi dago bide hori erabilita euskarazko itzulpenaren egitura, estiloa eta diseinua gaztelaniazko testuaren mende geratzen direla.

### Bi hizkuntzetan idaztea

<sup>1</sup>[http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/es/contenidos/informacion/argitalpenak/es\\_6092/adjuntos/irizpideakgazt.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/es/contenidos/informacion/argitalpenak/es_6092/adjuntos/irizpideakgazt.pdf).  
[http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/es/contenidos/informacion/argitalpenak/es\\_6092/adjuntos/irizpideakgazt.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/es/contenidos/informacion/argitalpenak/es_6092/adjuntos/irizpideakgazt.pdf).







Mendekotasun hori gainditzeko, Eusko Jaurlaritzak, ahal den neurrian, bi hizkuntzetan idatziko dela bermatuko du, zuzenean itzulpen-zerbitzuetara jo gabe. Bi hizkuntza-komunitateri informazioa ematea da, azken buruan, Eusko Jaurlaritzaren lana, eta, horretarako, ez da beharrezkoa zuzenean itzulpenetara jotzea beti: nahikoa da bakoitza bere aldetik idaztea, eta igorri beharreko mezua bi hizkuntzetan zabaltzea, mezuaren edukia errespetatuz betiere, baina estiloa hizkuntza bakoitzaren ezaugarrietara moldatuta.

### Gizarte-sareak, Internet eta Intranet

Gizarte-sareetan, Interneten eta Intraneten Eusko Jaurlari-tzaren titulartasuna duten edukiak euskaraz nahiz gaztelaniaz kontsultatu ahal izango dira oro har. Izenez eta izenburuez gain, pixkanaka-pixkanaka euskarazko edukiak ere areagotuko dira, sailtako erabilera-planetan ezarritako moduan.

Sailtako web-orrietan sailak berak sortu ez dituen edukiak gehitzen direnean (beste sail, instituzio edota enpresa batzuen materiala, esaterako), bi hizkuntzak era orekatuan agertu beharko dira; hau da, testuak sortzeko erabili diren hizkuntzen artean oreka egon beharko da, eta, bereziki, haien kalitatea bermatu beharko da.

## Hasierako orrira



## Eusko Jaurlaritzaren blog eta foroetako hizkuntza-irizpideak

Eusko Jaurlaritzaren blogetan, aurreko atalean jaso diren Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak erabiliko dira. Edukiak EAEko bi hizkuntza ofizialetan (euskara eta gaztelania) argitaratuko dira osorik, bi bertsio bereizitan. Bi hizkuntzen kalitatea zainduko da. Iruzkinak bakoitzak nahi duen hizkuntzan egin daitezke, eta iruzkinaren hizkuntzari dagokion bertsioan argitaratuko dira.

Blogak administratzaile edo dinamizatzaile elebidun bat izango du; pertsona hori argitalpenaren eritmoa koordinatzeaz arduratuko da (kolaborazioak proposatuz), eta jatorrizkoak bi hizkuntza ofizialetan era orekatuan argitaratzen direla bermatu beharko du. Horrez gain, iruzkinetan interes orokorreko eztabaida edo gai bat sortzen bada hizkuntzetako batean, eduki berri bat sortuko da landutakoarekin beste hizkuntzan.

## Gizarte-sareak oro har

Eusko Jaurlaritzaren gizarte-sareetan, aurreko atalean jaso diren Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak erabiliko dira. Edukiak EAEko bi hizkuntza ofizialetan (euskara eta gaztelania) argitaratuko dira. Sareek administratzaile elebidun bat edukiko dute, eta hizkuntzen kalitatea zaintzeaz arduratuko da pertsona hori.

## Facebook eta Tuenti

Kontu bakar bat irekiko da, eta edukiak euskaraz nahiz gaztelaniaz argitaratuko dira. Edukiak sartzekoan, euska-razko edukari emango zaio lehentasuna. Lehenengo euskarazko edukia bistaratuko da, eta gero gaztelaniazkoa. Parte hartzen duten hizkuntzan erantzungo zaie erabiltzaileei. Argazki, etiketa eta bestelakoan iruzkinak bi hizkuntzetan egingo dira, lehenengo euskaraz eta gero gaztelaniaz.

## Microblogging: Twitter

Kontu bakar bat irekiko da, eta edukiak euskaraz nahiz gaztelaniaz argitaratuko dira. Edukiak sartzekoan, euska-razko edukari emango zaio lehentasuna. Lehenengo euskarazko edukia bistaratuko da, eta gero gaztelaniazkoa. Horrez gain, ahal den guztietan, tuit bakar batean egingo da iruzkina bi hizkuntzetan, lehenengo euskaraz eta gero gaztelaniaz.


Hashtagak, nomenklaturak edota avatarrak euskaraz izango dira nagusiki, motzak direlako, hizkuntza ikusten laguntzen dutelako eta ez dutelako mezua ulertzea oztopatzen.

## Bideoak, argazkiak, geolokalizazioa eta markatzaile sozialak

Aurreko atalean jaso diren Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak erabiliko dira. Edukiak EAEko bi hizkuntza ofizialetan (euskara eta gaztelania) argitaratuko dira. Edukiak sartzekoan, euskarazko edukari emango zaio lehentasuna. Lehenengo euskarazko edukia bistaratuko da, eta gero gaztelaniazkoa.

## Hasierako orrira





Gizarte-sareetan funtsezkoak dira edukiak, argazkiak, txostenak, testuak eta gainerako informazioa; erabiltzaileek erabilgarri izaten dute material hori, irakurtzeko, haietara sartzeko, edota deskargatu ahal izateko. Erabiltzaileek partekatze ere izan daitezke.

Edukiak transferitzerakoan, Eusko Jaurlaritzaren nahiz edukiak partekatu dituzten erabiltzaileen jabetza intelektualeko eskubideak errespetatu behar dira, bai eta haien bidez erabilgarri jarri diren hirugarrenenak ere. Gizarte-sareek edukiak eta informazioa trukatzeko aukera ematen dute beti, eta gizarte-sareetan parte hartzen duten eragileek gero edukiak erabiltzeko aukera izaten dute. Horregatik, gure helburua jabetza intelektuari buruzko araudia errespetatzea eta edukiak transferitzea denez, edukien lizentzia ezartzerakoan lizentzia ireki edo libre direlakoak erabiliko ditugu; hau da, lanaren gaineko eskubide moralak (egiletza, aitortpena...) babestera behartzen duten aren, haiek kopiatzeko, aldatzeko, banatzeko eta jendeari komunikatzeko aukera ematen duten lizentziak.

Gainera, lizentzia irekiak erabiltzea betebeharrak bat da Administrazioentzat, haxe baitio azaroaren 16ko **37/2007 Legeak**, sektore publikoaren informazioa berrerabiltzeari buruzkoak: «Administrazioen eta sektore publikoko erakundeen jabetza intelektualeko eskubidea erabiltzerakoan, jabetza hori berrerabiltzea erraztu beharko da».

Zenbait eratako lizentzia irekiak edo lizentzia libreak daude, adibidez, **Creative Commons**<sup>1</sup> erakundearenak, edota sektore pribatuarenak, **Colorlurisen**<sup>2</sup> kasuan gertatzen den bezala. Lizentzia bakoitzaren barnean ere aukera zabala dago, irekietatik hasi eta muriztaileetaraino, lizentzia itxiak ahaztu gabe. Kasu honetan, ahalik eta lizentzia irekienak eta ahalik eta aukera gehien baimentzen dituztenak hautatzea komeni da, Creative Commons-enak, esaterako. Lan bati Creative Commons-en lizentzia jartzeak esan nahi du jendeak aurretiko baimena duela egileak egoki deritzon eskubideak izateko. Beraz, «eskubide guztiak erreserbatuta» tradizionalaren ordez, era horretako lizentziak «eskubide batzuk erreserbatuta»<sup>3</sup> izaten dituzte. Creative Commons lizentziak Espainiako jabetza intelektualaren araudiaren arabera dira, eta hizkuntza ofizialetara itzulita daude.

Creative Commons-en 6 lizentzia ditugu aukeran:

1. **“By” lizentzia:** (Egiletza edo aitortpena). Egileak bere lanaren erabilera guztiak baimentzen ditu, eta bere egiletza aitortzea da muga bakarra. Lanak erreproduzitu, banatu edo zabaltu egin daitezke, eta lan eratorriak sor daitezke.
2. **By-SA lizentzia:** By – Share Alike. (Egiletza – lan eratorriak lizentzia bera izateko betebeharra). Baimenduta dago erreproduzitzea, zabaltzea edo banatzea, eta aldatzea, lan eratorriak lizentzia bera badu betiere.
3. **By-NC lizentzia:** By – Noncommercial. (Egiletza – erabilera ez-komertziala). Egileak erreproduzitzeko, banatzeko edo zabaltzeko, eta lan eratorriak egiteko baimena ematen du, helburu komertzialik ez badago betiere.
4. **By-ND lizentzia:** Attribution No Derivatives. (Egiletza – aldaketarik ez). Egileak bere lanaren erabilera guztiak baimentzen ditu,

<sup>1</sup> Informazio gehiagorako: <http://creativecommons.org/>.

<sup>2</sup> Informazio gehiagorako: <http://www.colorluris.net/>.

<sup>3</sup> Introducción al Copyleft - Una perspectiva de su recepción en España. Javier De la Cueva



baita komertziala ere, baina ez du haren gainean eraikitzeko baimenik ematen; hau da, ez du lan eratorriak egiteko baimenik ematen.

5. **By-NC-SA lizentzia:** ((By – Share Alike – Noncommercial). (Egiletza – lizentzia bera – erabilera ez-komertziala). Baimenduta dago erreproduzitzea, zabaltzea edo banatzea, eta aldatzea, lizentzia bera erabiltzen bada eta helburu komertzialik ez badago betiere.
6. **By-NC-ND lizentzia:** (By – No Derivatives – Noncommercial). Baimenduta dago erreproduzitzea, zabaltzea edo banatzea, baina ez aldatzea, eta helburu komertzialekin erabiltzen ez bada betiere.

Ikusi ditugun lizentzia horien artean, erabilera guztiak (komertziala barne) baimentzen dituztenak aukeratu ditugu, egiletza aitortuz betiere:




- **Aitorpena (by).** Lanaren edozein erabilera baimentzen da, baita helburu komertzialearako erabiltzea eta lan eratorriak egitea ere, eta lan eratorri horiek inolako mugarik gabe bana daitezke.

CC lizentzia bat lortzeko, nahikoa da aurreko lizentzien artean gure beharretara hobekien egokitzen dena aukeratzeko. [www.creativecommons.org](http://www.creativecommons.org) web-orrian dagokion bereizgarria lor dezakegu, gure gunean erabili ahal izateko.

Bestalde, gizarte-sareen barruan lizentzia-mota aukera deza-kegu, normalean pribatutasun-aukeren barruan egoten dena.


## Hasierako orrira




## Facebook



[www.facebook.com/gobiernovascoirekia](http://www.facebook.com/gobiernovascoirekia)



### Hasierako orrira



### Zer da Facebook?

Gizarte-sare nagusia da gaur egun, 550 milioi profil baino gehiago baititu aktibo mundu osoan.

Beste pertsona batzuekin komunikatzeko eta haiekin informazioa, argazkiak, bideoak eta estekak partekatzeko plataforma bat da. Gainera, interesatzen zaizkien komuni-tateetan parte har dezakete erabiltzaileek. Halaber, Facebookek aukera ematen du gure kontaktuei (lagun edo fan ere deituak) mezu pribatuak bidaltzeko, bai eta ezagutzen ez ditugun beste pertsona batzuei bidaltzeko ere, gizarte-sare horren barruan badaude betiere. Ekitaldiak sortu eta beste erabiltzaile batzuk haietan parte hartzera gonbidatzeko aukera ere ematen du.

«Me gusta» (Gustatzen zait) edo «compartir en Facebook» (Facebooken partekatu) botoien ondorioz, oso sare birala da Facebook.

Bestalde, Facebooken oinarizko funtzioak osatzen dituzten zenbait aplikazio daude, eta funtzio-aukera berriak ematen dituzte, bai ludikoak bai profesionalak.

### Konfigurazioa eta eskaerak

Gizarte-sare honetan orri bat ireki behar duten sail, zerbitzu edo marken eskaerak Gida honetako 2. kapituluan adiera-zitako eredia jarraituko dute.

Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzenda-ritza arduratuko da kontuak irekitzeaz eta profilak behar bezala konfiguratzeaz, gizarte-sarearen erabilera-arauak betez; izan ere, Facebookek eskubidea du kontu horiek ordenatzeko (eta kasu batzuetan ixteko), ez badituzte ezarritako irizpideak betetzen.

### Profilak, orriak eta taldeak

Facebookek zenbait aukera ematen ditu, kontuan hartuta ea erabiltzaileak bere burua, instituzio bat, enpresa edo marka bat, edo jende-multzoko bat ordezkatzeko duen. Beraz, profil bat, orri bat (ofiziala edo komunitatekoa) edo talde bat sor daiteke gizarte-sarean, gure helburuen arabera.

## Profila

Profila izaten dute Facebooken bere izenean alta ematen duten pertsonak. Talde bat edo orri bat administratu ahal izateko, nahitaezkoa da baliozko profil pertsonal bat izatea aktibo Facebooken.

## Orria

Orriak instituzio, enpresa edo marka, pertsona ospetsu eta halakoentzat pentsatuta daude.

Beharrezkoa da haien atzean profil pertsonal bat edo gehiago egotea administratzaile gisa.

Orriak mota askotakoak izan daitezke:

a) Orri ofiziala.

Orri ofizialek Facebooken barruan beren gune ofiziala sortzeko aukera ematen diete instituzio, enpresa eta beste entitate batzuei, jarraitzaileekin komunikatu ahal izan daitezen.

b) Komunitate baten orria.

Orri hauen helburua izaten da kausa edo mugimendu bati babesa ematea.

## Taldea

Erabiltzaile (sortzaile) batek sortzen du, eta taldera gehitzen diren pertsonak rol desberdinak eduki ditzakete: adminis-tratzailea, taldekidea eta kidea. Taldeak publikoak, pribatuak edo sekretuak izan daitezke, eta gai edo interes espezifiko baten inguruan sare bat sortzeko balio dute.

## Orriak, aukera korporatibo egokiak

Orria aukera korporatibo egokiena da Eusko Jaurlaritzako sail, zerbitzu edo marketarako. Egia esan, aukera egokia da instituzioentzat eta haiak osatzen dituzten organoentzat, Facebookek izaera bereizgarria ematen baitie era guztietako erakundeei, profil pertsonaletatik bereizteko.

Ezin da profil pertsonal bat sortu sail, zerbitzu edo marka baterako, Facebookeko erabilera-arauen aurkakoa baita.


Gainera, orriek zenbait ezaugarri dituzte, sarea haien inguruan monitorizatu ahal izateko. Elkartzen diren erabiltzaileei buruzko estatistika osoak dituzte, haien adin, sexu, hizkuntza, herri-alde eta abarren informazioarekin.

## Kontuen kudeaketa

Jaurlaritzako sailek Facebooken dituzten orriak korporatiboak dira. Web Zerbitzuak baimentzen ditu, eta Gobernu Ireki-rako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzendaritzak konfi-guratzen ditu, Gida honetako 2. kapituluan ezarritako eska-era-eredua jarraituz.

Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzenda-ritzak orriak sortzen ditu, eta eredu korporatiboaren arabera konfiguratzeko ditu.

## Hasierako orrira



Orriak Facebooken web-interfazetik administratzen dira. Orriaren administratzailekide izateko baimenak emango zaiz-kie beren informazioa eta edukiak kudeatu behar dituzten erabiltzaileei.

## Aurkezpen-alderdiak

Facebookeko web-orrien aurkezpena hobetzeko, Static FBML (Facebook markup language, Facebooken programazio-lengoaia) aplikazioa instalatu daiteke, aukera ematen baitu edukia gehitzeko bai orriaren alboko barran bai nahi den HTML kodearen bidez sortutako fitxa gehigarrietan.

Inpaktu-irudiek nortasun korporatiboaren jarraibideak jarraitu behar dituzte. Sailen bannerretarako, 182 pixeleko zabalera eta 90 pixeleko altuera gomendatzen dugu.

Aplikazio horrek, halaber, aukera ematen digu fitxa bat edukitzeko guk nahi dugun HTML edukiarekin, kanpoko edukia gehitu eta Facebooken sartu ahal izateko (adibidez: [www.facebook.com/picodulce.fanpage](http://www.facebook.com/picodulce.fanpage))

## Nola txertatu banner bat orri batean

Aurretiko baldintzak: beharrezkoa da orria administratzeko pribilegioak edukitzea, estekatu nahi dugun irudia zerbitzari publiko batean egotea, eta HTMLren oinarriko ezagutzak edukitzea.

1. Lehenik eta behin, Static FBML aplikazioa instalatu behar da orri honetan: [www.facebook.com/apps/application.php?id=4949752878](http://www.facebook.com/apps/application.php?id=4949752878).
2. Horren ondoren, orria editatu behar da: FBML aplikazioa instalatuta egon beharko litzateke dagoeneko.
3. Editar (Editatu) aukera hautatzen badugu, koadro bat irekiko da, eta HTML kodea gehituko dugu bertan. Hona hemen adibide bat:  
<a href="http://www.irekia.euskadi.net" title="Irekia, Gobierno Abierto"> </a>
4. Editatutakoan, aldaketak gordeko ditugu eta orria itzuliko gara. Orriaren goiko menuan, *Caja* (Kaxa) izenburua duen fitxa bat agertu beharko litzateke, eta han gure edukia.
5. Kaxa horren eskuineko goiko aldean, arkatx bat agertuko da; han klik egin behar da, eta *Mover a la pestaña Muro* (Horma fitxara mugitu) hautatu.

## Edukiak

Ez da komeni egunean sarrera asko argitaratzerik Facebooken. Gehienez bi edo hiru argitaratu beharko lirateke, baina kontuaren jarduera-motaren baitan egongo da hori.

Gure iturrietako informazioa argitaratuko dugu Facebooken:

- Blog korporatiboan egon diren sarrera berrien argitalpena.
- Ekitaldien zuzeneko emanaldia: ekitaldi jakin batzuk streaming bidez jarraitzeko aukera ematen duten orrietara estekak.
- Interneteko gordailuetako bideo, argazki, aurkezpen eta abar berrien argitalpena.
- Web edo atariko albisteak, atal berriak, argitalpenak..

## Hasierako orria



Ez da komeni tuitak zuzenean argitaratzea Facebooken, idazketa desberdina baitute bi tresnek. Twitterren hashtagak erabiltzen dira, eta askotan beste erabiltzaile batzuk aipatzen dira; beraz, edukia sindikatuko bagenu, agian testuingurutik kanpo geratuko litzateke.

Bestalde, Facebookeko orrietan fitxak gehi daitezke saileko edo zerbitzuko gainerako gordailuetara sartu ahal izateko (YouTube, Flickr, SlideShare, Twitter...), eta alboetako widgetak ere gehi daitezke. Horrez gain, FBML programatuz pertsonaliza daitezke orriak; dagokion saila, marka edo zerbitzua arduratuko da horretaz.

### Hizkuntza-erabilerak

Edukiak euskaraz nahiz gaztelaniaz argitaratuko dira. Edukiak sartzeraotan, euskarazko edukari emango zaio lehentasuna. Lehenengo euskarazko edukia bistaratuko da, eta gero gaztelaniazkoa. Parte hartzen duten hizkuntzan erantzungo zaie erabiltzaileei. Argazki, etiketa eta bestelakoen iruzkinak bi hizkuntzetan egingo dira, lehenengo euskaraz eta gero gaztelaniaz.

### Iruzkinen kudeaketa

Oria administratzen duten pertsonak kudeatzen dute nori idatz dezakeen orriaren horman: orriak berak bakarrik, fanek bakarrik edo guztiek.

Gure gomendioa da erabiltzaile guztiek izatea horman idazteko aukera, baina orriaren argitalpenak bistaratzea lehenespenez. Horretarako, hormaren idazketa-kaxaren azpian dagoen *Configuración* (Konfigurazioa) atalean, hormaren ikuspegi lehenetsia «Sólo escritos por orriarenizena» izatea aukeratu behar da.

Horrek ez du esan nahi miresleek ezin izango dituztenik iruzkinak egin argitaratutako sarreretan. Beraz, informazio berri bat argitaratzean, zer iruzkin egiten diren begiratu beharko dugu, Facebookek ez baititu orrian aipatzen denari buruzko abisuak bidaltzen helbide elektronikora (nolanahi ere, RSS bidez egoeraren eguneratzeetara harpidetzeko aukera dago). Dena delako arrazoiengatik mugatu egin nahi badugu hormako sarreretan iruzkinak egiteko aukera, *Configuración* aukerara joan eta *Los comentarios sobre noticias se ampliarán por defecto* (Albistei buruzko iruzkinak lehenespenez zabalduko dira) atala desaktibatu beharko dugu. Dena den, ez egitea gomendatzen dugu.

Ahalik eta azkarren erantzun behar zaie iruzkinei, galdera edo kontsulta egin den espazioan bertan. Komeni da orriaren beste aldean norbait dagoela erakustea. Batzuetan, eskertu egin diezaiekegu erabiltzaileei talde gisa izan duten parte-hartzea, edo banaka ere eskertu dezakegu, iruzkin batek ekarpen baliotsuak egin baditu.

Iruzkina desegokia edo desatsegina bada, erabiltzaileari gizabidez erantzuteko modu egokia aurkitu beharko dugu, eta, hala badagokio, informazioa estekatuko dugu edo erantzun egokia eman dezaketen beste web batzuetara bideratuko dugu.

Garrantzitsua da erakunde gisa erantzutea; hau da, orriaren izenean. Kontu handiz ibili behar da, erraza baita Facebooken nahastea: **administratzaile batek edukia edo iruzkinak sartzan baditu orri batean, orriaren izenean egiten du, eta ez bere profil pertsonalarekin.**

### Hasierako orrira





Honela sailka ditzakegu iruzkinak:

a) Galderak, zalantzak eta eskaerak adieraztea

b) Ekarpenak

c) Kritikak: Facebooken kritika konstruktiboak egiten dire-nean, iruzkinen atalean erantzungo dugu publikoki, hor bakarrik idatz baititzakete mezuak erabiltzaileek, hasieran adierazitako jarraibideak jarraitu baditugu. Kritika negatiboa bada, kexa aztertu beharko da, eta modu konstruktiboan erantzun beharko zaio.

Informazio horretaz arduratzen den unitatearekin koordinatu behar da beti erantzuna, eta, hala badagokio, modu pribatuan komunika gaitzke mezu elektroniko baten bidez, erabiltzaileak informazio gehiago behar badu. Komeni da fitxategi batean gordetzea kontsulta eta kexa guztiak, erabilgarriak izan baitaitezke beste une baterako.

### Sare bat sortzea

Facebookeko orrien ezaugarri nagusietako bat da ez dagoela lagun-en zerrendarik (profilak, adibidez), baizik eta miresleak daudela; beraz, erabiltzaileei lagun egin daitezkeen eskatu beharrean, administratzaileak beste estrategia batzuk erabili beharko ditu erabiltzaile gehiago gehitzeko orri horretara.

Orriek beren URLa eduki dezakete (adibidez: [www.facebook.com/gobiernovascoirekia](http://www.facebook.com/gobiernovascoirekia)) 25 kide baino gehiago badituzte. Denbora gutxian iristeko kopuru horretara, honako ekintza hauek egitea komeni da:


- Sailaren kontaktu-zerrendei mezu elektroniko bat bidaltzea.
- Prentsa-ohar baten bidez jakinaraztea orri bat sortu dela.
- Facebookeko alboko barran espazio bat kontratatzea iragarkia jartzeko, horrek dakarren gastuarekin.

### Integrazioa

Facebook beste espazio batzuetan integartzeko modu asko daude:

- Sailak, markak edo zerbitzuak administratzen dituen espazioetan (blogak, Irekia weba, Euskadi.net ataria, sailen webak, gune bereziak...): web-orrietan kanpoko informazioa sartu eta hura sustatzeko balio duten widget izeneko aplikazio txiki batzuen bidez. Informazio gehiagorako: [www.facebook.com/facebook-widgets](http://www.facebook.com/facebook-widgets).
- Sailak, markak edo zerbitzuak administratzen ez dituen espazioetan: erabiltzaileei beren Facebookeko profiletan sailek sortutako informazioa argitaratzeko aukera ematen dien aplikazioen bat erabiliz (Share This modulua sail/zerbitzuren baten webean <http://sharethis.com>).


### Hasierako orrira




## Twitter



[www.twitter.com/irekia](http://www.twitter.com/irekia)  
[www.twitter.com/irekia\\_agenda](http://www.twitter.com/irekia_agenda)  
[www.twitter.com/irekia\\_news](http://www.twitter.com/irekia_news)



## Hasierako orrira



## Zer da Twitter?

Twitter mikromezularitzako edo microbloggingeko plataforma bat da, eta aukera ematen du testu-mezu motzak bidaltzeko (140 karakterera arte) eta beste erabiltzaile batzuekin hitz egiteko, web-nabigatzaileen bidez edota mahaigaineko bezeroen bidez eta telefonia mugikorraren bidez. Elkarrizketak Interneten argitaratzen dira (baina babestu daitezke, erabiltzailearen jarraitzaileek soilik ikus ditzaten), eta sareak sortzen dira interesatzen zaizkigun erabiltzaileei jarraituz.

Tresna egokia da zerbitzu berriak jakinarazteko, erreferen-tzietarako, era askotako informazioetarako (agendakoak, larrialdiak, argitalpen berriak...) eta ekitaldien emanaldiak egiteko. Baina herritarrekin hitz egiteko, lankidetzan aritzeko eta elkarrekintzan aritzeko tresna ere bada.

*The Guardian*-en arabera (<http://www.guardian.co.uk/media/2010/nov/19/alan-rusbridger-twitter>), Twitterrek ezaugarri hauek ditu:

- Informazioa zabaltzeko baliabide izugarria da.
- Albisteak lehenengo ematen dituen eta lehenengo eguneratzen dituen tokia da.
- Bilatzaile gisa Googlerekin lehia daiteke.
- Marketina egiteko modu bikaina da.
- Komunikatzeko modu bikaina da.
- Idazketaren tonua aldatzen du. Pertsonalagoa da.
- Zenbait hartzaile-maila ezartzen ditu.
- Arreta-ziklo handiak sor daitezke gai bati buruz.
- Komunitateak sortzea sustatzen du.

Aide horretatik, Eusko Jaurlaritzaren Twitterreko profilek erabiltzaileekin komunikazioa edukitzea eta haiekin elkarrekintzan aritzea sustatu behar dute.

## Kontuen kudeaketa

Jaurlaritzako sailen profilak korporatiboak dira. Web Zerbitzuari eskatu behar zaizkio, eta hark onartzen dituenean, Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzendaritzak konfiguratzeko dituzten konfigurazioak esan nahi du kontua sortzen dela, eta pantailaren atzeko planoan, avatara eta abar pertsonalizatzen direla. Horrez gain, profila kudeatzeko jarraibideak ere ematen ditu. Sailaren edo zerbitzuaren kontuari izena jartzeko, eremuaren, zerbitzuaren edo markaren izenari egi luza ematen zaio.

Adibidez:

- Etxebide: @etxebidejgv
- Sanidad: @osasunejgv
- Transportes: @garraioejgv
- Tráfico: @trafikoajgv

Eusko Jaurlaritzaren Twitterreko kontuak Jaurlaritzaren helbide elektronikoen bidez sortzen dira (ej-gv.es), eta kontu bakoitzak helbide batekin lotuta egon behar du; izan ere, Twitterrek erabiltzen duen sistemarekin, helbide bat ezin da kontu batera baino gehiagora lotu.

Bermatzeko kontu horiek ahalik eta ondoen administratuko direla, datuak ongi babestuko direla eta erantzukizuna eta kontrola transferituko direla, Jaurlaritzak gizarte-sareetan presentzia izateko duen ereduak ez du zuzenean lan egiten gizarte-sareetako aplikazioen identifikatzaileekin eta pasahitzekin.

Eusko Jaurlaritzaren Twitterreko kontuak eduki-kudeatzaileetatik administratzen dira. Aplikazio askotatik kudea daiteke Twitter, baina guk CoTweet gomendatzen dugu.

Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzendaritzak kontuak sortzen ditu, bai Twitterren bai CoTweeten, eta erabiltzaile aurreratu bat (advanced) esleitzen du administratzaile-lanetarako. Pertsona horrek, hala badagokio, beste erabiltzaile batzuk izenda ditzake editore korporatiboaren funtzioetarako, bai Jaurlaritzaren langileen artean bai kanpoko pertsonen artean (edukiak kudeatzen dituzten enpresak...). Erabiltzaile aurreratuak eta editoreek, era berean, kontu bat sortu behar dute hautatutako eduki-kudeatzailearen beren helbide batekin, gizarte-sareen kontuak kudeatu ahal izateko handik.

Kontuan izan behar da, Twitterren kontu bat ez bada eguneratzen sei hilabetez, inaktibotzat joko dela, eta ezabatu egin daitekeela automatikoki.


## Aurkezpen-alderdiak

### Kontuak pertsonalizatzea

Eusko Jaurlaritzaren Twitterreko kontuetan nortasun korporatiboaren jarraibideak jarraitzeko, Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzendaritzak honako eremu hauek definitu ditu:

- a) Kontuaren izena, Eusko Jaurlaritzako sail, zerbitzu edo markaren izenarekin eta egi luza ematen zaio.
- b) Profilaren avatarraren irudia, Prentsa Zuzendaritzak emana, haiek arduratzen baitira irudi korporatiboaz eta markaz.

## Hasierako orrira



- c) Erreferentziako bloga edo weba; sailaren, zerbitzuaren edo markaren URLa izan behar du.
- d) Lokalizazioa; kasu honetan, Euskadi.
- e) Deskribapen labur bat Bio atalerako; Eusko Jaurlaritzako sail, zerbitzu edo markaren proiektuak eta jarduera izan behar ditu, eta ezin ditu 160 karaktere baino gehiago eduki euskaraz eta gaztelaniaz.
- f) Atzeko plano. Sailaren marka orokorrak osatutako irudia, gizarte-sareetarako irudi korporatiboaren arabera egokituta, eta Eusko Jaurlaritzaren armarrira ur-markan.

### Hizkuntza-erabilerak

Kontu bakar bat irekiko da, eta edukiak euskaraz nahiz gaztelaniaz argitaratuko dira. Ingelesez edo beste edozein hizkuntzatan ere idatz daitezke, eduki-motaren arabera.

Edukiak sartzerakoan, euskarazko edukari emango zaio lehentasuna. Lehenengo euskarazko edukia bistaratuko da, eta gero gaztelaniazkoa. Horrez gain, ahal den guztietan, tuit bakar batean egingo da iruzkina bi hizkuntzetan, lehenengo euskaraz eta gero gaztelaniaz.

Hashtagak, nomenklaturak edota avatarrak euskaraz izango dira nagusiki, motzak direlako, hizkuntza ikusten laguntzen dutelako eta ez dutelako mezua ulertzea oztopatzen.

Beste tuit batzuei erantzuteko, jatorrizko tuitaren hizkuntza erabiliko da. Retuitei dagokienez, jatorrizkoaren hizkuntza errespetatuko da, logikoa denez.

### Tuitaren egitura

Tuitek testu bat izaten dute (izenburu gisa) eta, ahal bada, esteka laburtu bat, profilaren metrika erraz eta azkar zenbatu ahal izateko. Gainera, ahal den guztietan, tuitek etiketa edo hashtag bat ere eramaten dute, # sinboloa aurretik dutela.

**Testua + esteka laburtua + #hashtag**

Informazioaren testuak sintetikoa, zehatza eta laburra izan behar du. Horregatik, garrantzitsua da esteka bat eranstea ahal den guztietan, erabiltzaileek edukia zabaltzeko aukera izan dezaten.


Twitterren bidez ekitaldiak zuzenean ematean (live blogging), ez da beharrezkoa esteka jartzea, baina garrantzitsua da ekitaldiari erreferentzia egiten dion hashtag gehitzea tuitean. Tuitaren egiturak ordena hau izan behar du:

**Egilea + aipamena + #hashtag**

Boris Mir: zeharkako gaitasunak garrantzitsuak dira hezkuntza-sistema berrian #sessioweb

Aipamenaren egileak kontu bat baldin badu Twitterren, hura jartzen ahaleginduko gara:

@BorisM: zeharkako gaitasunak garrantzitsuak dira hezkuntza-sistema berrian #sessioweb





## Estekak

Estekak balio erantsia ematen diote tuitari. Ongi irakurri behar dira estekatzen diren testuak, eta ziurtatu behar dugu iturriak fidagarriak direla. Webguneak badira, komeni da egileak bilatzea, eta fidagarriak diren edo ez zehaztea. Oro har, ez da komeni blog pertsonalak estekatzerik, non eta ez den informazio garrantzitsua edukiagatik (Jaurlaritzaren Twitterreko profilaren helburuarekin hautatua), eta ez egilearen edo bloggerraren iritziagatik.

URL-laburtzaile bat erabiltzen saiatuko gara, adibidez, [bit.ly](http://bit.ly) (CoTweeten lehenespenez datorrena); kontu bakoitzerako pertsonalizatuta egongo da

## Hashtagak

Hashtagek edo etiketek tuitaren gaia zehazten dute. Twitterren dagoeneko existitzen direnak erabiltzea gomendatzen dugu. Etiketa bat erabilgarri dagoen edo ez jakiteko, nahikoa da Twitterren <http://search.twitter.com> bilatzailean idaztea (adibi-dez: administrazioa). Etiketak motza izan behar du.




Etiketak erabiliz, informazioa azkar berreskura dezakegu. Erabiltzaileek edukia bila eta iragaz dezakete etiketen bidez. Gainera, Twitterreko gai erabiltzen adierazte dira.



## Retuitak (RT)

Retuitak beste erabiltzaile batzuen tuitak dira, berriro argita-ratzen ditugunak elkarriketan ekarpenak egiteko. Gainerako erabiltzaileek retuiteatu ahal izateko, tuitek 125-130 karaktere izan behar dituzte gehienez (profilaren izenaren luzeraren arabera).

## Hasierako orrira



Oro har, formatu honekin idatzi behar dira:

RT + @tuiteatutakoprofilarenizena + testua + esteka laburtua + #hashtaga

RT @tecniap2010. Ekitaldiaren azken berriak Facebooken <http://ow.ly/1gCCQ> #tecniap

Garrantzitsua da lehenengo tuitaren esteka irekitzea eta berri-oro laburtzea tuitak kudeatzeko aplikazio korporatiboarekin, profilaren metrikari zentzuzko ahal izateko.

Twitterrek botoi bat dauka, retuitak automatikoki egiteko.

Retuiteatu daitezkeen eduki interesgarriak:

- Konfiantzazko iturrietatik datozen edukiak (Twitterreko kontuaren ardatza den gaiari adituak diren pertsonak edo instituzioak izan daitezke).
- Izen ona duten erabiltzaileek argitaratutako edukiak.
- Eusko Jaurlaritzako beste sail edo marka batzuetako informazio ofizialak.

Ez da komeni gako-hitz batetik zuzenean retuiteatea. Retuiten bolumenak ez du gaintu behar geuk sortutako tuiten bolumena, hasieran onargarria izan badaiteke ere orreka bat edukitzea bi argitalpen-modalitateen artean, sarea sortzeko helburuarekin.

Testuak 140 karaktere baino gehiago baditu, laburtu egin behar da, ulertzeko moduan betiere. Hashtag bat baino gehiago baldin badago, baten bat ezaba daiteke. Testua ez bada oso ulergarria, hizkuntza-akatsak baldin baditu edo edukia gehitu nahi badiogu, aldatu daiteke, betiere amaieran formula hau gehitzen badiogu:


Testua + esteka + #hashtaga + / via @tuiteatutakoprofilarenizena

Ekitaldiaren azken berriak Facebooken <http://ow.ly/1gCCQ> #tecniap/ via @tecniap2010



Twitter bidez iristen zaizkigun galderari erantzuterakoan, ezin baditugu laburtu, tuit-laburtzaileetara jo behar dugu, adibidez [www.twitterlonger.com](http://www.twitterlonger.com) laburtzaile, testu luzeagoak idatzi ahal izateko. Ez da gomendagarria. Twitter 140 karaktere baino gutxiagoko komunikazio laburretarako pentsatuta dago.

## Hasierako orrira



## Edukiak

Garrantzitsua da edukiz hornitzeko bane-kanal batzuk jartzea, eta zuzendaritza-unitateei tresna hori dagoela jakinaraztea, berehala komunikatzeko ekitaldiak, albisteak, kontsultak, larrialdiak... Nolanahi ere, Twitterreko profila kudeatzeaz ardu-ratzen diren pertsonak profileen argitaratzen dituzten edukiez, handik sortzen diren elkarrizketez eta garrantzitsuak diren edukiak retuiteatzeaz arduratu behar dute.

Twitterreko gizarte-sareari eusteko, jarraitutasunez argitaratu behar dira edukiak, baina neurritz kanpo argitaratu gabe. Oro har, egunean 1-10 tuit argitaratzea komeni da, ekitaldi bat zuzenean ematen denean izan ezik, kasu horretan interesgarria izan baitaiteke tuit gehiago argitaratzea, erabiltzaileek ekitaldiaren puntu nagusiak jarraitu ahal izateko; larrialdiak jakinarazterakoan eta halakoetan ere argitara daitezke tuit gehiago.

Edukiak, iruzkinak eta erantzunak eskuz kudeatzea komeni da, horrek spam-edukia edo -erabiltzaileak baztertzeko aukera ematen baitu.

CoTweetek tuitak programatzeko aukera ematen du, eta hori oso erabilgarria izan daiteke aurrez egindako tuit bat argitaratu behar badugu. Dena den, ez da gomendagarria ezaugarri hori asko erabiltzea.

## Eduki-motak

Beste iturri batzuetako informazioa:


- Blog korporatiboan egon diren sarrera berrien argitalpena.
- Ekitaldien zuzeneko emanaldia.
- Interneteko gordailuetako bideo, argazki, aurkezpen eta abar berrien argitalpena.
- Hautaketa-prozesuetako deialdi publikoak.
- Webeko albisteak, atal berriak, argitalpenak.
- Webean argitaratutako prentsa-oharrak. Prentsa-ohar bat tuiteatzean, komeni da berriro idaztea izenburua baliabide horretarako, eta weberako esteka gehitzea.

## Twitterren sortutako edukiak

- Ekitaldien iragarkiak eta haietarako gonbidapenak.
- Gertakarien, larrialdien eta egoera kritikoaren jakinarazpena.
- Sareko informazio egiaztatuarekin Twitterrerako bakarrik sortu-tako edukiak, Jauritzaren profilari balioa gehitzen diotenak. Hartara, kalitate handiko edukien konfiantzazko iragazki bihurtuko da profila.

Twitterren jarduera finkatutakoan, tuiten argitalpena automatiza daiteke, zenbait edukiren (deialdi publikoak, diru-laguntzak, aldiz-kari ofizialak...) RSS sindikazioaren bidez, bolumen handiegia sortzen ez badute betiere.

## Hasierako orrira



## Kontsultak eta erabiltzaileen beste ekarpen batzuk

Erantzuna behar duten aipamenak ahalik eta azkarren erantzun behar dira. Bi motatakoak daude:

- Galderak, zalantzak eta eskaerak adieraztea: norberaren eremuari dagozkionak badira, pertsona horri erantzun dakioko zuzenean.
- Kritikak: kritika konstruktiboaren kasuan, aukerarik egoki-ena publikoki erantzutea da, erabiltzaileen iritziei erantzuten zaiela erakusteko. Kritika negatiboa bada, kexa aztertu beharko da, eta modu konstruktiboan erantzun beharko zaio.

Beharrezkoa bada informazio gehiago ematea, helbide elektroniko batera bidera daiteke pertsona hori.

Sail, zerbitzu eta markeri buruzko kontsulta eta kexa ohikoe-nak Irekiaren wiki korporatibo batean gorde daitezke, Jaurla-ritzak gizarte-sareetan duen presentzia kudeatzen duen komunitateak etorkizunean kontsultatu ahal izan ditzan.

### Sare bat sortzea: jarraitzaileak (*followers*) eta jarraituak (*following*)

Sailaren profila sortzen denean, aktiboki jarraituko dira beste sail eta erakunde garrantzitsu batzuk. Gure zerbitzu-estrategiarekin lotuta dauden pertsoneri eta erakundeei jarraitzea komeni da.

Berez, gure profilaren jarraitzaile egin diren pertsona guztiei jarraituko diegu, oinarizko netiketa-arau bat baita. Nolanahi ere, ez da komeni avatar iraingarriak (adibidez, pornografikoak) dituzten jarraitzaileei edo spam egiten duten jarraitzaileei jarraitzea, eta, beraz, blokeatu egingo ditugu, gure profilaren jarraitzaileen artean egon ez daitezzen.

Jarraitzen ditugun erabiltzaileen kopuruak ere zerikusia du Twitterren dugun ospean. Oreka bat egon behar da gure jarraitzaileen eta guk jarraitzen ditugun erabiltzaileen artean. Bestela, esan daiteke ez gara tresna ongi erabiltzen ari, bi noranzkotan jakintza partekatzea eta gizarte-sare bat sortzea baita helburua.


Baina komunikazio hori ahalik eta ondoen kudeatu ahal izateko, zerrindak egin beharko ditugu, gure profilera egokitzen den jarduera izateagatik gertutik jarraitu beharko genituzkeen pertsona edo erakunde espezifikoekin.

## Integrazioa

Twitterreko kontuak, publikoak direnez, beste espazio batzu-etara lot daitezke, web-orri batean kanpoko informazioa sartu eta hura sustatzeko aukera ematen duten aplikazio txiki batzuen bidez (widgetak). Widgetak leku hauetan erabil daitezke:

- Gure espazioetan:** blog korporatiboak, atari korporatiboa, sailen webak edo web bereziak.
- Gure kanpoko espazioetan:** Facebookeko orri batean eta abarretan, fitxa baten bidez, albo bateko widget baten bidez edota argitalpen automatiko baten bidez.
- Besteen espazioetan:** widgeta integra daiteke, edozein pertsonak bere orrira, blogera eta abarrera gehitu ahal izateko.

## Hasierako orrira






## Arazoak argitalpenean

Twitterreko kontuak kudeatzean, baliteke aplikazio horrek ez funtzionatzea unerren batean. Ezin dugu ezer egin hori aldatzeko, eta berriaz ere funtzionatzen hasi arte itxaron behar dugu.

Baliteke, halaber, kontu horiek kudeatzeko erabiltzen dugun kudeaketa-tresnak, CoTweetek, arazoren bat izatea. Arazo horiek ez dute denbora luzez irauten normalean, baina baliteke ekitaldi bat ezin estali edo eman ahal izatea horregatik, adibidez. Horrelako arazo batek kontuen jarduera normala kaltetu ez dezan, ordezeko balabide batzuk proposatzen dizkizuegu, Twitterri dagokion zatia konpontzeko.

Testua ([Bit.ly](https://bit.ly)): Eusko Jauriaritzaren Twitterreko kontu bakoitza bit.ly laburtzailearen kontu batera lotuta dago, eta, laburtzaile horri esker, CoTweet zerbitzuak funtzionatzen ez duenean ere tuiteatzen jarraitu ahal izango dugu. Testua eta estekak argitaratzeko balioko digu, eta, era berean, erabili ditugun esteken trazabilitate estatistikoari eutsiko diogu.

## Hasierako orrira



## Tuenti



<http://tuenti.com/irekia>

Euskadiko eta inguruko gizarte-sarerik handiena da Tuenti, bai eta erabiltzaile aktibo gehien dituen ere: gazteen artean da batez ere ezaguna. Tuentiko erabiltzailearen batez besteko adina 23 urte eta erdi da. Beraz, plataforma egokia da jende-multzoko handi bati informazioa helarazteko, nahiz eta nahiko zatikatua egon multzo hori. Horregatik, Tuentin presentzia eduki-kitzea erabaki du Jauriaritzak.

Erabiltzaile gazteekin komunikatzeko eta haiekin informazioa, argazkiak, bideoak eta estekak partekatzeko plataforma bat da gizarte-sare hau. Gainera, interesatzen zaizkien komunitateetan parte har dezakete erabiltzaileek. Bestalde, gure kontaktuei (*lagun* deituak) mezu pribatuak bidaltzeko aukera ematen digu Tuentik, bai eta ekitaldiak sortu eta beste erabiltzaile batzuk haietan parte hartzerako gonbidatzeko aukera ere.

### Profilak, orriak eta ekitaldiak

Tuentik zenbait aukera ematen ditu, kontuan hartuta ea erabiltzaileak bere burua, instituzio edo enpresa bat, edo jende-multzoko bat ordezkatzeko duen. Beraz, profil bat edo orri bat (ofiziala edo komunitatekoa) sor daiteke gizarte-sarean, gure helburuen arabera. Tuentik erreserbatuta du horiek ixteko eskubidea, ez badituzte jarritako irizpideak betetzen.

#### Profila

Profila izaten dute Tuentin bere izenean alta ematen duten pertsonak.

Gizarte-sare honen sortzaileek hau azpimarratzen dute: profilek begiak dituzte, eta beti pertsona fisikoenak dira.

Ori ofizial bat administratu ahal izateko, nahitaezkoa da profil pertsonal bat edukitzea gizarte-sare honetan. Komeni da, gainera, ahalik eta osatuen egotea, argazki eta guzti.

#### Orria

Oriak instituzio, enpresa, talde eta abarrentzat pentsatuta daude, eta profil pertsonal batek administratu behar ditu beti.



## Hasierako orrira



Orri ofizialek Tuentiren barruan beren gune ofiziala sortzeko aukera ematen diete instituzio, enpresa eta beste entitate batzuei, jarraitzaileekin komunikatu ahal izan daitezten.

## Ekitaldia

Tarte jakin batean gertatzen diren gertakari garrantzitsuak dira ekitaldiak. Hainbat aukera sartzen dira ekitaldiaren barruan: egun eta ordu jakin batean egiten den ospakizun bat, zenbait egun irauten duen biltzar bat, zenbait aste irauten duen kanpaina bat...

Ekitaldiak sortzen baditugu gertakari garrantzitsu horietarako, erabiltzaile gehiagorengana iritsiko dira, gizarte-sareak zabaldu egingo dituelako

## Orriak aukera korporatibo egokiena

Jaurlaritzako sailek orria hautatu dute aukera korporatibo gisa. Aukera egokiena da instituzioentzat eta haien osatzen dituzten organoentzat, Tuentik izaera bereizgarria ematen baitie era guztietako erakundeek, profil pertsonaletatik bereizteko.

## Kontuen kudeaketa

Jaurlaritzako sailek Tuentin dituzten orriak korporatiboak dira. Web Zerbitzuak baimentzen ditu, eta Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzendaritzak konfiguratu ditu. Sailetako arduradunek Web Zerbitzuarekin harreman-netan jarri behar dute, Tuentin orri bat eduki ahal izateko dagokion avatarrarekin, eta orriari eta irudi korporatiboari buruzko jarraibideak izateko, I. eranskinen eskaera-eredu-ari jarraiki.

Eusko Jaurlaritzaren Tuentiko orriak profil pertsonal batetik sortzen dira, helbide elektroniko korporatibo batekin. Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzendaritzak kontuak sortzen ditu, bai administratzailearen profil pertsonala (ez baldin badu aurrez), bai eta orri ofiziala ere, eta erabiltzaile administratzaile bat izendatzen du. Pertsona horrek, hala badagokio, beste erabiltzaile batzuk izenda ditzake editore korporatiboaren funtzioetarako.

## Edukiak

Ez da komeni egunean sarrera asko argitaratzerik Tuentin. Ohikoena 2 edo 3 argitaratzea da, baina kontuaren jardura-motaren baitan egongo da hori, eta kontuan hartu behar da beti gazteen gertuko hizkera erabili behar dela.

Gure iturrietako informazioa argitaratuko dugu Tuentin:

- Blog korporatiboan egon diren sarrera berrien argitalpena.
- Ekitaldien zuzeneko emanaldia: ekitaldi jakin batzuk streaming bidez jarraitzeko aukera ematen duten orrietara estekak.
- Interneteko gordailuetako bideo, argazki, aurkezpen eta abar berrien argitalpena.
- Webeko albisteak, atal berriak, argitalpenak.

## Hizkuntza-erabilerak

Edukiak euskaraz nahiz gaztelaniaz argitaratuko dira. Edukiak sartzekoan, euskarazko edukari emango zaio lehentasuna. Lehenengo euskarazko edukia bistaratuko da, eta gero gaztelaniazkoa. Parte hartzen duten hizkuntzan erantzun zaila erabiltzaileei. Argazki, etiketa eta bestelakoen iruzkinak bi hizkuntzetan egingo dira, lehenengo euskaraz eta gero gaztelaniaz.

## Hasierako orria



## Iruzkinen kudeaketa

Administratzaileak kudeatzen du norik idatz dezakeen orriaren horman: berak bakarrik, erabiltzaileek bakarrik edo guztiak.

Erabiltzaileek iruzkinak egin ditzakete argitaratutako sarreretan, eduki irekia baita. Beraz, informazio berri bat argitaratzean, zer iruzkin egiten diren begiratu beharko dugu, Tuentik ez baititu orrian aipatzen denari buruzko abisuak bidaltzen helbide elektronikora (nolanahi ere, RSS bidez egoeraren eguneratzeetara harpidetzeko aukera dago). Dena delako arrazoiengatik mugatu egin nahi badugu hormako sarreretan iruzkinak egiteko aukera, *Configuración* aukerara joan eta *Los comentarios sobre noticias se ampliarán por defecto* (Albisteei buruzko iruzkinak lehenespenez zabalduko dira) atala desaktibatu beharko dugu. Dena den, ez egitea gomendatzen dugu.

Ahalik eta azkarren erantzun behar zaie iruzkinei, galdera edo kontsulta egin den espazioan bertan. Erabiltzaileari bere parte-hartzea eskertzea eta beharrezko diren eduki osagarriak gehitzea komeni da. Iruzkina desegokia edo desatsegina bada, erabiltzaileari gizabidez erantzuteko modu egokia aurkitu beharko dugu, eta, hala badagokio, informazioa estekatuko dugu edo erantzun egokia eman dezaketen beste web batzuetara bideratuko dugu. Garrantzitsua da erakunde gisa erantzutea; hau da, orriaren izenean eta ez administratzailearen profilaren izenean.

Honela sailka ditzakegu iruzkinak.

- Galderak, zalantzak eta eskaerak adieraztea.
- Kritikak: Tuentin kritika konstruktiboak egiten direnean, iruzki-nen atalean erantzungo dugu publikoki, hor bakarrik idatz baititzakete mezuak erabiltzaileek, hasieran adierazitako jarraitbideak jarraitu baditugu. Kritika negatiboa bada, kexa aztertu beharko da, eta modu konstruktiboan erantzun beharko zaio.

Informazio horretaz arduratzen den unitatearekin koordinatu beharko da beti erantzuna, eta, hala badagokio, modu pribatuan komunikatu gaitzke mezu elektroniko baten bidez, erabiltzaileak informazio gehiago behar badu. Komeni da fitxategi batean gordetzea kontsulta eta kexa guztiak, erabilgarriak izan baitaitezke beste une baterako.

## Sare bat sortzea

Tuentiko orrien ezaugarri nagusietako bat da ez dagoela lagun zerrendarik (profilak, adibidez), baizik eta erabiltzaileek daudela; beraz, erabiltzaileei lagun egin daitezkeen eskatu beharrean, administratzaileak beste estrategia batzuk erabili beharko ditu erabiltzaile gehiago gehitzeko orri horretara.

Oriek beren URLa dute (adibidez: [www.tuenti.com/irekia](http://www.tuenti.com/irekia)); aurrez ofizializazio-eskaera bat egin behar zaio Tuentiri, eta Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzendaritza arduratuko da horretaz ere.

## Pribatutasuna

Jaurkitzaren Tuentiko orrien pribatutasun-aukerak sistemak lehenespenez dituenak dira..

## Hasierako orrira



## LinkedIn



### Zer da LinkedIn?

LinkedIn profesionalen elkarrekintzarako plataforma bat da; esperientziak truka ditzakete bertan, lan-praxia hobetzeko. Atariak aukera ematen du ekimen edo proiektu jakin batzuen inguruan interes-taldeak sortzeko, galderak egin edo erantzuteko, eta lanpostuak argitaratu edo bilatzeko.

Eusko Jaurlaritzaren kasuan, sortuta dago dagoeneko instituzio edo «enpresa» bat, eta [@ej-gv.es](mailto:@ej-gv.es) sare korporatiboan helbide elektronikoa duten pertsona guztiak izan daitezke bertako partaide.

### Konfigurazioa

Linkedineko kontuak pertsonalak dira. Gizarte-sare honetako partaide izan nahi duten pertsona guztiak eman dezakete alta, eta ez da beharrezkoa aurretiko baimena lortzea. Komeni da, gutxienez, egungo lanpostua adieraztea, eta sare korporatiboan parte hartu nahi izanez gero, [ej-gv.es](mailto:ej-gv.es) helbidea jartzea.


### Taldeak

Linkedineko taldeak irekiak edo itxiak izan daitezke, eta gonbidapena behar da haietara sartzeko. Nolanahi ere, taldeko edukien pribatutasuna bermatuta dago, taldeak ezin baitira indexatu. LinkedIn pertsona-sare bat da, eta ez da komeni erakundeek profil pertsonalak ireki eta [www.linkedin.com/in/erabiltzailearenizena](http://www.linkedin.com/in/erabiltzailearenizena) motako URL publikoak edukitzeak.

### Taldeak kudeatzea Linkedinen

Talde bat sortzeko, eskaera egin behar da Gida honetako 2. kapituluaren adierazitako ereduaren arabera.

Talde bat sortuko da sail/arlo/atal bakoitzeko, eta administra-tzaile-jabe bat egongo da erakundeko talde guzientzat, administrazio-tzaile-eskubideak emango dizkiona sail bakoitzeko taldeari.



Nolanahi ere, gizarte-sareetako tresna guztietan gertatzen den moduan, helburua da sistemaren bideragarritasuna bermatuko duen kudeaketa deszentralizatua sustatzea.

### Linkedineko talde baten atalak

- a) Laburpena. Gure tresnetan, adibidez, blogetan, hasitako eztabaida osoetatik abiatuta, balio handiko ekarpenak egin ditzaketen edukiak argitaratzea komeni da.
- b) Eztabaidak. Gaiak eztabaidatzeko foroak.
- c) Albisteak. Feedetarako argitalpena.
- d) Enplegua. Lan-iragarkiak.
- e) Azpitaldeak. Sortzen badira soilik.
- f) Taldearen kudeaketa eta beste alderdi batzuk.

Kanpoko inguruneetan (blogak, Facebook, Twitter...) sustatu behar dira taldeak, Linkedinek ez baitu asko errazten zabaltzea.


### Edukiak kudeatzeko estrategiak


- a) Taldea sustatzea (blogak, foroak...).
- b) Albisteen ataleko edukien argitalpena automatizatzea, beste gordailu eta sare batzuetan (nagusiki Twitter, blogak, Facebook...) argitaratutako edukien feed bidez (RSS bidez). Kanala ez betetzeko, komeni da sailarekin edo zerbitzuarekin lotutako albisteak edo informazioak soilik argitaratzea eskuz. Hartara, taldeko erabiltzaileei eduki espezializatuagoak eska-ina ahal izango dizkiegu.
- c) Gai bati buruzko eztabaidak blogean egiten direnez, gomendatzen dugu eskuzko laburpenak argitaratzea Linkedinen, laburpenaren atalean. Taldeko partaide diren erabiltzaileek abisatzeko mezu elektronikoa jasoko dute automatikoki administratzaileek eztabaidagai berri bat argitaratzen duten bakoitzean.

### Hizkuntza-erabilerak

Eskuz editatzen diren edukiak euskaraz nahiz gaztelaniaz argitaratuko dira. Edukiak edo laburpenak sartzekoan, euskarazko edukari emango zaio lehentasuna. Lehenengo euskarazko edukia bistaratu da, eta gero gaztelaniazkoa. Parte hartzen duten hizkuntzan erantzunak emango zaie erabiltzaileei.

### Hasierako orrira





[www.youtube.com/irekia](http://www.youtube.com/irekia)

Erabiltzaileei beren bideoak argitaratzeko, ikusteko eta partekatzeko aukera ematen dien plataforma da YouTube. Egokia da sailen jarduerari buruz informatzen duen ikus-entzunezko materiala edo material didaktikoa zabaltzeko. Irekia multimedia-plataforma korporatiboaren osagarria da ([http://www.irekia.euskadi.net/es/web\\_tv](http://www.irekia.euskadi.net/es/web_tv)).

### Aurkezpen-alderdiak: kontuak pertsonalizatzea

YouTubek aukera ematen du orria pertsonalizatzeko gure avatarrarekin eta kanalaren oinarriko koloreak aldatuz (atzeko planoak, letra-tipoaren koloreak, estekak...).

Bideoek ezin dute 10 minutu baino gehiago iraun. Bideo luzeenetarako, gure plataforma erabiltzea gomendatzen dugu, hau da, Irekia plataforma, aukera ematen baitu kodea txertatzeko eta gero blogetan edo webetan erabiltzeko, materiala partekatzeko....


### Kontuen kudeaketa

Eusko Jauriaritzak kontu korporatibo bat du YouTubean, eta sailen edukiak erreproduzio-zerrendetan sailkatuta daude, sail bakoitzak zerrenda bat baitu.

Ez dugu gomendatzen sail bakoitzak bere kanala sortzerik, baina egokia den edo ez aztertuko genuke beharrezko balitz.

Sail batek edukia igo nahi badu YouTubean, Gida honetako 2. kapituluaren adierazitako eskaera-eredua jarraitu behar du. Web Zerbitzuak uste badu, bolumenagatik, sailak ez lukeela konturik eduki behar gizarte-sare honetan, eskatzailea Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzendaritzarekin harremanetan jarri ahal izango da, eta hark aztertuko du zein den aukerarik egokiena edukia kontu korporatibora igarotzeko.

Eusko Jauriaritzaren YouTubeko kontuak [ej-gv.es](http://ej-gv.es) helbide elektronikoetatik sortzen dira, eta Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzendaritzan konfiguratu dira.



## Edukiak

YouTubeko webak aukera ematen du bideoak erreproduzio-zerrendatan sailkatzeko eta erreproduzitu nahi dugun zerrenda hautatzeko, edo bideo bat hautatu eta erreproduzio-zerrenden eta bideoen atalean nabarmentzeko.

Bideo bat argitaratzerakoan, beharrezkoa da izenburu bat eta deskribapen labur bat jartzea. Horrez gain, etiketen eremua bideoari erreferentzia egiten dioten gako-hitzekin betetzea komeni da, errazago bilatu ahal izateko.

## Hizkuntza-erabilerak

Gida honetako 3. kapituluan jaso diren Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak erabiliko dira. Bideoak, deskribapenak eta etiketak, ahal den guztietan, formatu elebidunean argitaratuko dira, edota EAEko bi hizkuntza ofizialetan (euskaraz eta gaztelaniaz). Izenburua, berriz, dagokion hizkuntzan jarriko da.

Lehenengo euskaraz etiketatuko da, eta gero gaztelaniaz.

## Sarea

Gizarte-sareek erabiltzaileekin elkarrekintzan aritzeko dituzten funtzio batzuk ditu YouTubek, adibidez, berehalako mezularitza eta iruzkinen sistema, baina erabaki dugu aurkeztu ditugun gainerako tresnetan lantzea funtzio horiek, eta YouTube bideoak zabaltzeko baliabide gisa soilik erabiltzea. Gordailu-funtzio hori bete dezan, komeni da *Nadie puede enviar comentarios sin aprobación* (Inork ezin du iruzkinik bidali onarpenik gabe) fitxa aktibatzea *Comentarios sobre tu canal* (Zure kanalari buruzko iruzkinak) atalean.

Erabiltzaileekin elkarrekintzan aritzeko beste gizarte-sare batzuk erabili nahi ditugunez, eta ez YouTube, *Opciones para compartir y emitir videos* (Bideoak partekatzeko eta emateko aukerak) atalean *No permitir comentarios* (Ez onartu iruzkinik), *No permitir votaciones sobre comentarios* (Ez onartu iruzkinei buruzko bozketarik), *No permitir respuestas en video* (Ez onartu bideoko erantzunik) eta *No permitir que se puntúe este video* (Ez onartu bideo hau puntuatzerik) markatuko ditugu.

## Integrazioa

Zerbitzu hau beste gune batzuetan integratzeko modurik ohikoena edukiak beste baliabide batzuetan txertatzea da, esaterako, blogetan txertatzea. Hartara, blogeko irakurleek beste web batera joan beharrik gabe erabil dezakete baliabidea, eta, beraz, irakurlea ez da galtzen, eta klik-kopurua optimizatzen da.

## Hasierako orrira






## Flickr



[www.flickr.com/irekia](http://www.flickr.com/irekia)



Interneten argazkiak argitaratzeko zerbitzu bat da Flickr, eta irudiak gordetzeko balio du; YouTube bezala, Eusko Jauriaritzaren «Argazki» banku ikonografikoaren osagarria da.

Sail bakoitzeko ekitaldien, prentsaurrekoen, aurkezpenen eta abarren argazkiak edota argazki instituzionalak argitara daitezke Flickrren, eta albumetan bana daitezke gaiaren arabera. Kontuan izan behar da doako bertsioarekin 100 MB (10 MB argazkiko) karga daitezkeela gehienez hilean, eta 200 argazkira iristen garenean, lehendabizi kargatu genituenak ezkutatu egiten direla; gainera, mugatuta dago sor daitezkeen albumen kopurua. Beraz, edukiera handiagoa nahi izanez gero, *pro* bertsioa kontratatu beharko da, eta eskatzen duen sailak ordaindu beharko du kostua.

Dena den, gomendio orokorra da sailek Eusko Jauriaritzaren kontu korporatiboaren barruan argitaratzea argazkiak, han sailentzat bakarrik den bilduma eta/edo album bat baitago. Album bereziak ere sor daitezke, uneren batean behar hori sortzen bada.

Flickrek bideo motzak argitaratzeko ere balio du (90 segun-dokoak).

### **Aurkezpen-alderdiak: kontuak pertsonalizatzea**


Flickrek gure avatara gehitzen uzten digu. Irudia 48 x 48 pixele-koa da, Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzendaritzak ematen du, eta gizarte-sareetan presentzia izate-ko diseinu korporatiboaren araberkoa da.

Kanala bistaratzeko modua ere aukera daiteke: hau da, argazkiak zutabe bakarrean, bi zutabetan edo hiru zutabetan agertzea, gure kontuko albumak eta bildumak alboan agertzea...

### **Kontuen kudeaketa**

Eusko Jauriaritzak *pro* kontu bat du Flickrren, bilduma batekin sail bakoitzeko; bilduma horretan zenbait album daude zuzendaritzetarako, zerbitzuetarako, ekitaldi berezietarako eta abarrerako, errazago sailkatu ahal izateko argazkiak eta errazago bilatu ahal izateko gero.

Web Zerbitzuak erabakiko du Flickrren kontua eskatzen duen sailak bere kontua edukiko duen edo ez; berez, ez da komeni bere kontua



edukitzerik, eta material grafiko asko duela justifikatu beharko du bat edukitzeko. Bestela, sarrera pertsonalizatua emango zaio argazkiak Flickr Pro korporatibora igotzeko.

Eusko Jauriaritzaren Flickrreko kontuak ej-gv helbide elektroni-koetatik sortzen dira, eta Firefoxen FireUploader izeneko aplikaziotik kudeatzen dira ([www.fireuploader.com](http://www.fireuploader.com)). Aplikazio horri esker, Flickrreko gure kontuko edukietara sar gaitzke, Flickrren webgunean sartu beharrik gabe; FTP bezero baten antzera funtzionatzen du. Aukera ematen digu argazkiak igotzeko, izenburua, deskribapena eta etiketak gehitzeko, eta album edo bildumetan sailkatzeko, gero Flickrren webetik ikusi ahal izan daitezten.

## Edukiak

Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzenda-ritzak Flickrreko kontua birkonfiguratu du, argazkiek Creative Commons-en aitopene-lizentzia eduki dezaten (ikusi Gida honetako 4. kapitulua).

Horretarako, *Tu cuenta* (Zure kontua) / *Privacidad y permisos* (Pribatutasuna eta baimenak) / *Opciones predeterminadas para las cargas nuevas* (Karga berrietarako lehenetsitako aukerak) / *Qué licencia tendrá tu contenido* (Zer lizentzia izango duen zure edukiak) aukerara jo behar dugu, eta han *Reconocimiento-Sin obras derivadas* (Aitorpena - lan eratorririk gabe) aukera hautatu.

## Hizkuntza-erabilerak

Gida honetako 3. kapituluan jaso diren Eusko Jauriaritzaren Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak erabiliko dira. Argazkien edo albumen etiketak eta izenburuak, ahal den neurrian, EAEko bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko dira (euskaraz eta gaztelaniaz). Edukiak sartzeraoan, euskarazko edukari emango zaio lehentasuna. Lehenengo euskarazko edukia bistaratuko da, eta gero gaztelaniazkoa.

## Sarea


Flickrren argitaratutako materialak beste gizarte-sare batzuen bidez zabaltzen dira, adibidez, Twitter eta Facebooken bidez, ahalik eta erabiltzaile gehienengana iristeko.

Irudi-gordailu lanak bakarrik egiteko konfiguratu da Flickrreko kontua. Gizarte-sareetan egiten direnen moduko iruzkinak argitara ez ditzaten, *Privacidad y permisos* (Pribatutasuna eta baimenak) atalera joan behar da, gero *Opciones predeterminadas para las cargas nuevas* (Karga berrietarako lehenetsitako aukerak) / *Quien pueda agregar notas, etiquetas y personas* (Nork gehi ditzake oharrak, etiketak eta pertsonak) atalera jo, eta han *Solo tú* (Zuk bakarrik) aukera hautatu.

## Integrazioa

Zerbitzu hau beste gune batzuetan integratzeko modurik ohikoena edukiak blog korporatiboetan txertatzea da. Blogeko sarrera baten eduki gisa txerta daiteke, baina badago beste aukera bat ere: alboko barran aplikazio batzuk (widgetak) erabiltzea, sailaren, zerbitzuaren edo markaren atari, web edo blogetik sartu ahal izateko Flickrren galeriara.

## Hasierako orrira





[www.slideshare.net/irekia](http://www.slideshare.net/irekia)

Aplikazio honen bidez aurkezpenak, testu-dokumentuak, PDFak eta iraupen laburreko bideoak argitara daitezke Interneten. Beraz, Eusko Jaurlaritzako sail, zerbitzu edo markek sortutako era guztietako dokumentuen gordailu gisa funtzionatzen du.

### Kontuen kudeaketa

Oro har, sailek kontu korporatiboa erabiliko dute beren doku-mentuak SlideSharera igotzeko, sail jakin batek sortutako dokumentazioaren bolumenak kontu espezifiko bat edukitzea justifikatzen duen kasuetan izan ezik.

Jaurlaritzako sailen SlideShare kanalak korporatiboak izango dira, eta Web Zerbitzuak baimenduko ditu; Web Zerbitzuak Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzendaritzari bidalko dio onarpena, hark konfiguratu dezan, Gida honetako 2. kapituluan jasotako eskaera-ereduari jarraiki.

Eusko Jaurlaritzaren SlideShareko kontuak ej-gv helbide elektronikoetatik sortzen dira, eta Firefoxen FireUploader izeneko aplikaziotik kudeatzen dira ([www.fireuploader.com](http://www.fireuploader.com)). Aplikazio horri esker, SlideShareko gure kontuko edukietara sar gaitezke, SlideShareren webgunean sartu beharrik gabe; FTP bezero baten antzera funtzionatzen du. Aukera ematen digu aurkezpenak igotzeko, eta izenburua, deskribapena eta etiketak gehitzeko, gero SlideShareren webetik ikusi ahal izan daitezten.


### Konfigurazioa

SlideSharek orria gure avatarrarekin pertsonalizatzen uzten digu. Irudiak 100 x 100 pixelekoa izan behar du.

Aurkezpen guztiek Creative Commons en aitoren-motako 3.0 lizentzia edukitzeko (CC BY 3.0), *Edit profile / Manage account / Choose defaults for your content* aukerara joan behar da, eta *CC Attribution License* aukera hautatu.

### Edukiak eta sarea

SlideShare argitaratutako materialak beste gizarte-sare batzuen bidez zabaltzen dira, adibidez, Twitter eta Facebooken bidez, ahalik eta erabiltzaile gehienengana iristeko.



Sare honetan ezin da eragotzi erabiltzaileek iruzkinak egiterik, baina gutxienez ez sustatzea gomendatzen dugu. Aplikazioan erabiliko dugun sare-zati bakarria harpidetzarena izango da.

SlideShare aurkezpenen gordailu gisa bakarrik erabiltzeko, *Edit profile / Privacy settings* aukeran sartu behar da, eta *No one* aukera hautatu behar da agertzen diren lau aukeren artean.

SlideSharen argitaratzen diren material guztiek, aurkezpenek nahiz dokumentuek, PDF formatuan egon behar dute, deska-rgatzen dituzten internautek haietan aldaketarik egin ez dezaten. Parametro hauek zehaztu beharko dira: dokumentuaren izenburua, etiketak, dagokion CC lizentzia, ori jarraituaren formatua, fitxategiaren deskribapena dokumentuaren izenburuarekin eta orrialde osoko bistaratzea.

## Etiketatzea

Oso ongi zehaztu behar dira SlideSharera igotzen diren dokumentuak eta aurkezpenak etiketatuko dituzten hitzak, erabiltzaileek erraz aurkitu ahal izan ditzaten.

Etiketa (tag) batek hitz bakar bat edo gehiago izan dezake, eta hitz horrek edo hitz horiek zehaztasun handiz deskribatu behar dute partekatutako edukia. Gogoan izan ez dagoela mugarik dokumentuei etiketak jartzeko, eta, beraz, ongi ordenatzeko behar ditugun guztiak erabili ditzakegula.

Partekatutako materiala homogeneoa izateko, etiketatzeko jarraibide batzuk jarriko ditugu:

- Azenturik gabe eta puntuazio-markarik gabe etiketatu behar dugu beti.
- Partekatutako edukia Eusko Jauriaritzako erakunde ofizialen batean sortu bada, lehenabizi egingo etiketa jarriko dugu beti.
- Partekatutako edukia Eusko Jauriaritzako sail batean sortu bada ofizialki, bigarrenik sailaren etiketa jarriko dugu beti. Sailak etiketa bat baino gehiago baldin badu, aukerarik egokiena edo egokienak hautatuko ditugu.

Hona hemen sail bakoitzaren etiketen zerrenda:

### Lehendakaritza

Presidencia

Lehendakaritza

Lehendakaritza / Presidencia

### Herrizaingoa

Interior

Herrizaingoa

Herrizaingoa / Interior

### Hezkuntza, Unibertsitate eta ikerketa

Educación, Universidades e investigación

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa

Hezkuntza / Unibertsitatea / Ikerketa / Educación / Universidad / Investigación

### Ekonomia eta Ogasuna

Economía y Hacienda

Ekonomia eta Ogasuna

Ekonomia / Ogasuna / Hacienda

## Hasierako orria



## Justizia eta Herri Administrazioa

Justicia y Administración Pública

Justizia eta Herri Administrazioa

Justizia / Herri administrazioa / Administración pública

## Etxebizitza, Herri Lana eta Garraioa

Vivienda, Obras Públicas y Transportes

Etxebizitza, Herri Lana eta Garraioa

Etxebizitza / Herri Lana / Garraioa / Vivienda / Obras Públicas / Transportes

## Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoa

Industria, Innovación, Comercio y Turismo

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoa

Industria / Berrikuntza / Merkataritza / Turismo / Innovación / Comercio

## Lana eta Gizarte Gaiak

Empleo y Asuntos Sociales

Lana eta Gizarte Gaiak

Lana / Gizarte Gaiak/ Empleo / Asuntos Sociales

## Osasuna eta Kontsumoa

Sanidad y Consumo

Osasuna eta Kontsumoa

Osasuna / Kontsumoa / Sanidad / Consumo

## Ingurumena, Lurralde Antolamendua, Nekazaritza eta Arrantza

Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca

Ingurumena, Lurralde Antolamendua, Nekazaritza eta Arrantza

Ingurumena / Lurralde Antolamendua / Nekazaritza / Arrantza / Medio Ambiente / Planificación Territorial / Agricultura / Pesca

## Kultura

Cultura

Kultura

Kultura / Cultura

## Hasierako orrira



## Hizkuntza-erabilerak

Aurreko atalean jaso diren Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Ofizia-len Erabilerarako Irizpideak erabiliko dira. Edukiak eta etiketak, ahal den guztietan, formatu elebidunean argitaratuko dira, edota EAEko bi hizkuntza ofizialetan (euskaraz eta gaztelaniaz). Izenburua, beriz, dagokion hizkuntzan jarriko da. Lehenengo euskaraz etiketatuko da, eta gero gaztelaniaz.


## Beste gune batzuekin integratzea

Zerbitzu hau beste gune batzuetan integratzeko modurik ohikoena edukiak blog edo atari korporatiboetan txertatzea da. Hartara, baliabidea erabiltzean irakurleek ez dute beste web batera joan behar edukia kontsultatzera, eta, beraz, irakurlea ez da galtzen eta klik-kopurua optimizatzen da.

## Delicious



[www.delicious.com/irekia](http://www.delicious.com/irekia)



## Hasierako orrira

### Zer da Delicious?

Delicious Interneten dagoen markatzaile sozialen zerbitzu bat da. Sarean argitaratuta dauden era guztietako dokumentuen edo webgune interesgarrien URLak gordetzen dira bertan. «Gogokoak» deiturikoen eredia jarraitzen du, hau da, nabi-gatzaile pertsonalean gordetzen diren webgune inte-resgarrien zerrendaren eredia, eta material hori sarean partekatzea eta etiketen (tag) bidez eta etiketa-paketeen (bundle) bidez sailkatzea proposatzen die erabiltzaileei. Etiketak eta etiketa-paketeak oso erabilgarriak dira, atariaren barruan gako-hitzen bidez materialak bilatzea errazten dutelako.

Deliciousek ematen duen beste zerbitzu bat da norberak bere pertsona-sarea osatzea (network), pertsona horiekin partekatzeko markatzaile sozialak eta gizarte-sarearen hotlis-terako sarrera; azkenaldian gehien ikusi diren markatzaileak daude hotlisten.

### Gestión de cuentas

Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzenda-ritzak sortzen ditu Eusko Jaurlaritzaren Deliciouseko kontuak, eskaera egin eta Herritarrei Arreta Emateko Zuzendaritzako Web Zerbitzuak onartu ondoren. Jaurlaritzaren ej-gv helbide elektronikoetara elkartutako Yahooko helbide elektronikoetatik sortzen dira, eta beste tresna batzuetatik ere kudea daitezke. Beharrezkoa izango da Delicious instalatzea Firefox nabigatzailean.

### Edukiak

Delicious erabiltzeak balioko du:

1. Jaurlaritzak bere profilen bidez partekatu dituen eduki guztien historia bat sortzeko.
2. Jaurlaritzak Interneten sortu dituen eduki guztien jarraipena egiteko.
3. Eduki interesgarriak gordetzeko eta gaiaren eta jatorriaren arabera ordenatzeko aukera ematen duen espazio bat antolatzeko.



## Edukiak

Esteka bat gordetzerakoan bete behar den oinarrizko informazioak lau eremu hauek ditu:

- URLa: baliabidearen URLa.
- Izenburua: baliabidearen izenburua. Normalean, sistemak automatikoki hartzen du gorde nahi dugun baliabidearen izenburua, eta, beraz, baliteke guk aldatu behar izatea, edukira egokitu dadin.
- Oharrak: esteka deskribatzeko erabiltzen dugun zatia da. Izenburuak edo etiketek ematen duten informazioa zabaltzeko balio du, bai eta gero bilaketa baten bidez errazago aurkitu ahal izateko ere.
- Etiketak: baliabideak deskribatzeko eta sailkatzeko erabiltzen ditugu, eta era ordenatuan taldekatzeko balio dute.

## Etiketatzea

Ez dago mugarik markatzaileei etiketak jartzeko, eta, beraz, markatzaileak ongi ordenatzeko behar ditugun guztiak erabil ditzakegu. Delicousek etiketak proposatu ohi ditu gorde behar ditugun baliabideetarako. Erabil ditzagun erabilgarri zaizkigunean.

Partekatutako materiala homogeneoa izateko, etiketatzeko jarraibide batzuk jarriko ditugu:

- Azenturik gabe eta puntuazio-markarik gabe etiketatu behar dugu beti.
- Delicousek hitz bakar bat onartzen du etiketa gisa. Beraz, bi hitz behar baditugu edukia ongi definitzeko, hitz elkartuak sortuko ditugu. Adibidez, liburu elektronikoaren kasuan, *liburuelektronikoak* izango litzateke etiketa egoki bat.
- Partekatutako edukia Eusko Jaurlaritzako erakunde ofizialen batean sortu bada, lehendabizi ejpg etiketa jarriko dugu beti. Komeni da *bundle* bat sortzea EJVrako, honako tag hauekin: EJV, GobiernoVasco, EuskoJaurlaritz.
- Gutxienez EAEko bi hizkuntza koofizialetan etiketatuko da. Eduki-motagatik, beharrezkotzat jotzen bada beste hizkuntza batean ere gehitzea etiketak (ingelesez, frantsesez...), hizkuntza horretan ere etiketatuko da.
- Partekatutako edukia Eusko Jaurlaritzako sail batean sortu bada ofizialki, bigarrenik sailaren etiketa jarriko dugu beti. Sailak etiketa bat baino gehiago baldin badu, aukerarik egokiena edo egokienak hautatuko ditugu. Ikusi sail bakoitzaren etiketen zerrenda.

Garrantzitsua da sailaren etiketa ez ahaztea, markatzaileak kategoriara edo etiketa-paketara (*bundle*) sailkatzeko aurre-eremurik ematen baitu, eta, hartara, materialak sailaz sail bilatu baitaitezke. Beste *bundle* batzuk ere sor daitezke, antzeko gaia duten edukiak taldekatzeko.

*Bundle*-kopurua mugatzea komeni da, errazago sailkatu ahal izateko, eta edukiak ahalik eta gehien zehazteko. Alde horretatik, oso garrantzitsua da definituko dituzten terminoak ongi aukeratzea: argiak eta zehatzak izan behar dute.

## Hasierako orrira



## Lehendakaritza

Presidencia

Lehendakaritza

Lehendakaritza / Presidencia

## Herrizaingoa

Interior

Herrizaingoa

Herrizaingoa / Interior

## Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa

Educación, Universidades e investigación

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa

Hezkuntza / Unibertsitatea / Ikerketa / Educación / Universidad / Investigación

## Ekonomia eta Ogasuna

Economía y Hacienda

Ekonomia eta Ogasuna

Ekonomia / Ogasuna / Hacienda

## Justizia eta Herri administrazioa

Justicia y Administración Pública

Justizia eta Herri Administrazioa

Justizia / Herri administrazioa / Administración pública

## Etxebizitza, Herri Lana eta Garraioa

Vivienda, Obras Públicas y Transportes

Etxebizitza, Herri Lana eta Garraioa

Etxebizitza / Herri Lana / Garraioa / Vivienda / Obras Públicas / Transportes

## Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoa

Industria, Innovación, Comercio y Turismo

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoa

Industria / Berrikuntza / Merkataritza / Turismo / Innovación / Comercio

## Lana eta Gizarte Gaiak

Empleo y Asuntos Sociales

Lana eta Gizarte Gaiak

Lana / Gizarte Gaiak / Empleo / Asuntos Sociales

## Osasuna eta Kontsumoa

Sanidad y Consumo

Osasuna eta Kontsumoa

Osasuna / Kontsumoa / Sanidad / Consumo

## Ingurumena, Lurralde Antolamendua, Nekazaritza eta Arrantza

Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca

Ingurumena, Lurralde Antolamendua, Nekazaritza eta Arrantza

Ingurumena / Lurralde Antolamendua / Nekazaritza / Arrantza / Medio Ambiente / Planificación Territorial / Agricultura / Pesca

## Kultura

Cultura

Kultura

Kultura / Cultura


## Hasierako orrira



## Hizkuntza-erabilerak

Aurreko atalean jaso diren Eusko Jauritzaren Hizkuntza Ofizial-en Erabilerarako Irizpideak erabiliko dira. Edukiak eta oharrak EAEko bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko dira (euskaraz eta gaztelaniaz). Izenburua, berriz, dagokion hizkuntzan jarriko da. Lehenengo euskaraz etiketatuko da, eta gero gaztelaniaz. Etiketatze-lana errazteko, bi hizkuntzak biltzen dituzten bundleak sortzea gomendatzen dugu.






Internet mugikorra hedatu denetik (gailu eramangarriak, tele-fonia mugikorra, Wi-Firen erabilera, 3G...), geolokalizazioko gizarte-sareak areagotzen ari dira.


Erabiltzailea toki jakin batean geoposizionatzen da, eta bere kontaktuei jakinarazten die.

Hona hemen geoposizionamendurako plataforma nagusiak: Google, Facebook, Tuenti, Foursquare eta Gowalla.

Eusko Jaurlaritzak bere eraikuntzen kokapena gizarte-sare-etan zaintzeaz arduratuko da. Beraz, gizarte-sareei gune horien presentzia eskatuko die.

Egoitzak kontu korporatiboetan eduki nahi dituzten sailek eska-era egin beharko dute Gida honetan adierazitako prozedura jarraituz.





<http://blog.pip.euskadi.net>

### Zer da blog bat?

Gaurkotasunarekin, sailen proiektuekin, ekitaldiekin eta aba-rrekin lotutako informazioa zabaltzea helburu duen tresna bat da bloga. Nahiko maiz argitaratzen dira sarrerak, komunikazio-lotura bat izateko irakurleekin. Horregatik, oso garrantzitsua da ongi planifikatzea blogean editatzen diren sarrerak, testu interesgarriak eta dinamikoak izan daitezen, eztabaida pitz dezaten, eta sailaren, zerbitzuaren edo markaren jarduerarekin lotuta egon daitezen.

Bloga korporatiboa da eta sailaren zerbitzura dago. Beraz, idazketa-profila edo profilak korporatiboak izango dira (hau da, edukiak sortzen dituzten erabiltzaileek profil generiko batetik egiten dute). Dena den, baliteke blog batzuetan sarrerak (post) informazioa argitaratu duen pertsonaren izen-abizenekin sinatuta egotea (zerbitzuen blogak, markenak...).

Blogeko sarreren azken helburua da jendearen parte-hartzea sustatzea. Hortaz, idazketa-lanaren ondoren, gizarte-zerbitzu egokien bidez zabaltzea beharko dira sarrerak. Egon daitezkeen iruzkinak kudeatzeaz ere arduratu beharko gara.


### Eskaerak eta konfigurazioa

Blog batean alta emateko, beharrezkoa da Web Zerbitzuarekin harremanetan jari eta ekimena jakinaraztea, eta blogaren helburuak, hartzailak eta gaia adieraztea. 1. eranskinean formulario bat dago eskaera-ereduarekin; bete eta Web Zerbitzuari bidali behar zaio. Ekimena onartutakoan, EJI Eren Interneteko Proiektu Komunen taldearekin harremanetan jarriko da Web Zerbitzua, tresnan alta emateko. Azkenik, 24/48 orduko epean, EJI Eren Interneteko Proiektu Komunen taldeak sarrera-datuak eta garatzaileentzako gidallburu labur bat bidaliko dizkie eskatzaileari eta Web Zerbitzuari.

### Konfigurazioa

Sailari, zerbitzuari edo markari dagokio bloga konfiguratzea.

Eusko Jaurilaritzak ez dauka txantiloia estandar bat blog korporatiboetarako. Beraz, nahi duten txantiloia erabil dezakete, beren markaren gama kromatikoarekin, hala nahi izanez gero, eta betebeharrak bakarrik izango da logotipoa eta Euskadi.net atarirako esteka gehitzea goiburuan edo headerrean.



Jauriaritzako sailen gizarte-sare guztiak batzen ditu blogak, eta, beraz, gainerako tresnak blogaren osagarriak dira, eta hura zabaltzeko erabiltzen dira. Atzeraelkadura-funtzio hori errazteko, dagokion sailaren gizarte-sareetara bideratzen gaituzten aplikazioak edo widgetak gehitzen dira blogean. Hartara, erabiltzaile gehiagorekin konektatzea eta sare are zabalagoa sortzea lortzen dugu. Helburua da guztia integratzea, sailak sarean dituen profil guztiak ezagut ditzaten erabiltzaileek, eta harremanak izateko zer web erabili nahi dituzten aukeratu ahal izan dezaten.

## Edukiak

### Maiztasuna

Gomendio orokorra da astean sarrera bat edo bi argitaratzea, erabiltzaileek iruzkinak egiteko denbora nahikoa izan dezaten; alde horretatik, kantitatea baino garrantzitsuagoa da kalitatea.

Kontuan hartu beharko da, halaber, eguneko zer ordu eta asteko zer egun diren egokienak sarrerak argitaratzeko eta zabaltzeko, blog hori elikatzen duen pertsona-sarearen jokabidearen arabera. Hartara, gizarte-sareetako tresnen bidez sarrera ahalik eta gehien zabaltzea lortuko dugu.

### Estilo-jarraibideak

#### a) Egitura:

Testuak sei paragrafo eduki ditzake gehienez (400 bat hitz), eta motzak eta zehatzak izan behar dute, bi irakurketa-mailatan banatuak. Lehenengo mailan informazio nagusia laburbilduko dugu, eta bigarrenean, berriz, informazio gehigarria adieraziko dugu (zabaldu eta zehaztasunak eman).

#### b) Informazioaren antolaketa:

##### • I. Izenburuak:

Blog bat EZ da prentsa-oharren gordailu bat.

Sarreraren edukia modu labur eta irakargarrian adierazten duten informazio-titularrei emango zaie lehen-tasuna, blog korporatibo baten formaltasuna galdu gabe.

##### • II. Lehenengo irakurketa-maila


Hausnartzea eragiten duten egiturak erabiltzea komeni da (galdera erretorikoak, adierazpenak...).

Paragrafoek informazio gehiago emango dute, baina motzak izan behar dute: garrantzitsua da informazioa ahalik eta gehien laburtzea. Gainera, bigarren maila irakurtzen jarraitzeko gogoia pizten duen esaldi batekin bukatzea komeni da.

##### • III. Bigarren irakurketa-maila

Informazio gehigarria jasotzen da hemen; hau da, hasierako edukia zabaltzen duten zehaztasunak, sarreraren ideia orokorra izateko beharrezkoak ez direnak.

Ez da beharrezkoa amaieran ondorio bat gehitzea laburpen gisa: gogoan izan Interneteko ingurunean ari garela argitaratzen, eta ez badugu informazio garrantzitsua hasieran jartzen, erabiltzaileak orria utzi eta irakurtzeari utz diezaioke. Beste era batera esanda, laburpena edo informazio garrantzitsua lehenengo mailan jarri behar da, eta ez bigarrenean. Helburua da testuaren gakoak lehenengo paragrafoetan ematea erabiltzaileari, gaia interesatzen zaion edo ez erabaki ahal izan dezan.



Garrantzitsua da testuak oinarrian dituen informazio-iturriak estekatzea, irakurleak beharbada ezagutzen ez duen kontzeptu, izen berezi edo terminoren bat aipatzen denean, esteka bat egon dadin konfiantzazko iturri batera, han informazio gehiago jaso ahal izateko (Eusko Jaurlaritzaren iturriak, konfiantzazko hiztegiak edo webguneak, komunikazio-bideak, blog batzuk...).

#### c) Irudiak

Sarrerak erakargarriago egiteko, irudiz hornitzea komeni da. Garrantzitsua da gure sarrerak ilustratzeko erabiliko ditugun irudien jabetza intelektualeko eskubideak ezagutzea. Gomendio orokorra da Irekiaren fototekara (<http://www.irekia.euskadi.net/es/gallery>) edo Argazkira (Eusko Jaurlaritzaren banku ikonografikoa) joatea; izan ere, bi kasuetan irudiek lizentzia irekia dute, eta berrerabili egin daitezke.

Hirugarrenen argazki bat behar izanez gero, Creative Commons lizentzia duten irudiak lor ditzakegu (<http://es.creativecommons.org>) Interneteko gordailuetan. Irudi horien lizentziek egile-eskubideak babesten dituzte, baina hirugarrenek erabiltzeko aukera batzuk baimentzen dituzte. Lizentzia hori errespetatu beharko da, iturria aipatuz edo egileak jarritako baldintzak betez.

#### Hedapena

Blogean sarrera berri bat argitaratzen dugunean, Facebooken eta Twitterren zabaltzea komeni da: sarreraren izenburua adieraz dezakegu esteka gehituz, edo forma erakargarriagoak bila ditzakegu (erabiltzaileei gai jakin bati buruz galdetzea, parte hartzera animatzea...). Garrantzitsua da parte-hartzea blogera bideratzea, plataforma bakar batean zentralizatzeko eztabaida.

#### Hizkuntza-erabilerak

Eusko Jaurlaritzaren blogetan, Gida honetako 3. kapituluari jaso diren Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak erabiliko dira. Edukiak EAEko bi hizkuntza ofizialetan (euskara eta gaztelania) argitaratuko dira osorik, bi bertsio bereizitan. Bi hizkuntzen kalitatea zainduko da. Irizkinak bakoitzak nahi duen hizkuntzan egin daitezke, eta irizkinaren hizkuntzari dagokion bertsioan argitaratuko dira.


Blogak administratzaile edo dinamizatzaile elebidun bat izango du; pertsona hori argitalpenaren erritmoa dinamizatzeaz arduratuko da (kolaborazioak proposatuz), eta jatorrizkoak bi hizkuntza ofizialetan era orekatuan argitaratzen direla bermatu beharko du. Horrez gain, iruzkinetan interes orokorreko eztabaida edo gai bat sortzen bada hizkuntzetako batean, eduki berri bat sortuko da landutakoarekin beste hizkuntzan. Edukiak beste hizkuntza batean ere jar daitezke, adibidez, ingelesez, baldin eta edukiaren izaera orokorrak hala eskatzen badu.

#### Edukiak

Ez da komeni bloga agenda bat bihurtzerik, eta, beraz, ez dira ekitaldien deialdiak edo aurreikuspenak gehitu behar. Ekitaldi garrantzitsuen deialdiak bakarrik argitaratuko dira, betiere helburua aurretiko eztabaida bat sortzea, saiora joateko inere-resa piztea eta gero blogean izandako eztabaidarekin jarraitzea bada. Interesgarria izan daiteke, ordea, nolabaiteko garrantzia izan duten ekitaldien kronikak idaztea.

Blogean argitaratzen den informazioak balio erantsia izan behar du, irakurleen interesa bereganatzeko. Garrantzitsua da, halaber, blogeko gaiaren ildoak zehaztea orietako batean, erabiltzaileak jakinaren gainean egon daitezkeen.

## Hasierako orria



## Iruzkinen kudeaketa

Komeni da argitaratu aurretik blogeko iruzkinak moderatzea. Garrantzitsua da iruzkinak argitaratzeko oinarriko jarrai-bideak adieraztea blogean, erraz ikusteko moduko toki batean. Jarraibide horien oinarrian egokitasuna (elkarriz-ketaren ildoarekin lotutako iruzkinak), errespetua (iraingarria ez den hizkera erabiltzea) eta informazio-mota (pertsonei pribatutasuna eta datuak babes daitezzen errespetatzea) egon behar dira.


Ez da komeni gure sarreraren helburuarekin zerikusirik ez duten webetara estekak dituzten publizitate-informazioak agertzerik. Baldintza horiek betetzen ez dituzten iruzkinak ezin dira argitaratu, baina, nahi badute, iruzkinak beste era batera jartzeko aukera emango zaie egileei.

Iruzkinetan erabiltzen den hizkuntzak gutxienezko kalitate bat duela bermatu beharko dute blogeko edizioaren arduradunek beharrezkoa bada (zuzenketa ortografikoa), Administrazioaren blogen eredu-izaera dela eta. Iruzkinari gehienez ere 24 orduko epean erantzutea komeni da.

## Hasierako orrira



# Eduki-kudeatzaileak



## Hasierako orrira

### Zer dira eduki-kudeatzaileak?

Interfaze komun batetik weben edukiak administratzeko aukera ematen diguten tresnak dira; argitaratzen ari garen edukiori ematen zaio garrantzia, tresnaren diseinuari edo kontaktuen kudeaketari baino gehiago.

Aurrez ikusi dugun moduan, bermatzeko Eusko Jaurlaritzaren kontuak gizarte-sareetan ahalik eta ondoen administratuko direla, datuak ongi babestuko direla eta erantzukizuna eta kontrola transferituko direla, Jaurlaritzak gizarte-sareetan pre-sentzia izateko duen ereduak, ahal dela, ez du zuzenean lan egiten gizarte-sareetako aplikazioen identifikatzailearekin eta pasahitzarekin.

Gainera, gizarte-sareen kudeaketa hobetzen duten tresna integratuak dituzte: egoeraren eguneratzeak programatzeko tenporizadoreak, URL-laburtzaileak, alarmak...

### Eskaerak eta konfigurazioa

Gida honetako 2. kapituluari jasota dagoen moduan, Web Zerbitzuak edo Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunika-ziorako Zuzendaritzak onartzen duenean sailak, markak edo zerbitzuak gizarte-sareetan kontuak irekitzeko eginiko eska-era, kontuak kudeatzeko erabiliko diren ordenagailuetan Firefox nabigatzailea instalatzeko eskatuko du sailak, bere informatika-buruaren bidez.

EJIEko instalatzaileek Firefox instalatuko dute, elementu hauekin:

- **Fireuploader**, Flickrrekin eta SlideSharearekin ftp-lanak egi-ten dituen kudeatzaile bat, eta
- **Delicious**, sailaren Delicouseko kontua kudeatzeko balio duena.

Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzenda-ritzak konfiguratu dituzten kontuak aplikazio horietan.


Twitter gizarte-sarea kudeatzeko, Cotweet aukeratu dugu edu-ki-kudeatzaile gisa, dituen ezaugarriengatik eta erabiltzeko erraza delako.

Web-kudeatzaile bat da. Doako bertsioak Twitterreko 5 kontu erabiltzeko eta lantaldeak osatzeko edo tuitak esleitzeko aukera ematen du, bai eta [bit.ly](http://bit.ly) URL-laburtzaileko kontu pertsonalizatu bat erabiltzeko ere, eta horrek esteka partekatuen estatistikak emango dizkigu.

Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzendari-tzak konfiguratu dituzten sailaren CoTweeteko kontua.



## Oinarrizko hiztegia



- AVATAR.** Gure profilaren irudia da; oro har, argazki bat izaten da pertsonen kasuan, eta logo bat sail, zerbitzu edo marken kasuan.
- BOOKMARK,** Orria markatzeko adierazpen ingelesa da.
- BUNDLE,** Ezaugarri komunak dituzten etiketen edo tagen multzoa da, eta bit.ly edo delicious.comen bilaketak hobe-tzea du helburu
- DM.** Twitterreko bi erabiltzaileen arteko mezu pribatua da.
- ETIQUETA.** Ikusi TAG
- FBML** (Facebook Markup Language). Facebooken markatze-lengoaia da. Facebooken ingurunean guztiz integratuta dauden aplikazioak erakitzen laguntzeko balio du. Zenbait aukera ematen ditu: erabiltzaileen profilera sartzea, argazkiak erakustea, iruzkinen foroak egitea...
- FF.** Ikusi FOLLOWFRIDAY
- FOLLOWFRIDAY.** Twitterren ostiralero egiten den joko masibo bat da. Arrazoiren batengatik aipagarriak iruditzen zaizkigun beste erabiltzaile batzuk gomendatzen dira bertan. Tuitaren hasieran edo amaieran #followfriday jartzen da, laukitoxa aurrean duela, hori baita Twitterren edukia etike-tatzeko modua...
- FTP** (File Transfer Protocol). Fitxategiak transferitzeko protokoloa da; Internetera eta Internetetik informazioa kargatzeko edo deskargatzeko aukera ematen duen metodo bat da.
- HASHTAG.** Twitterren ETIKETEI edo TAGEI deitzeko erabiltzen den izena da, eta tuitak kategorizatze balio du.
- HEADER.** Web baten goiburua da. Blogaren izenburua eta sailaren marka bertan jartzen dira normalean.
- HOME.** Hasierako orria da.
- HOTLIST.** Deliciouseko erabiltzaileek gehien gordetzen dituzten URLen zerrenda da.
- HTML.** (Hypertext markup language). Web-orriak egiteko era-biltzen den markatze-lengoaia nagusia da.
- LINK.** ikusi URL.
- LOGIN.** Sistema baten barruan erabiltzailea identifikatzen duena da. Sistema babestu batean sartzeko, gure logina eta passworda (pasahitza) eskatzen zaizkigu normalean).

## Hasierako orrira



**NETIKETA.** Ohiturak eta esperientziak jarritako arauen multzoa da, eta Interneteko erabiltzaileek, gizabidez jokatzeko eta portaera egokia izateko, arau horiek jarraitu behar dituzte beste erabiltzaile batzuekin harremanetan daudenean.

**PIXEL.** Ingeleseko *picture element* (irudi-elementua) adieraz-penaren akronimoa da. Irudi digital baten zati den koloreko unitate homogeneorik txikiena adierazten du; irudi digital hori argazki bat, bideo-fotograma bat edota grafiko bat izan daiteke.

**POST.** Oro har blog batean edo Facebookeko horman idatzitako artikulu idatzia.

**PROSUMITZAILE, edo prosumer.** Ingeleseko *producer* (produzitzzaile) eta *consumer* (kontsumitzaile) hitzak elkartuz sortutako akronimoa da. Ingeleseko *professional* (profesio-nal) eta *consumer* (kontsumitzaile) hitzen elkarketarekin ere lotzen da.

**RSS** (Really Simple Syndication) edo sindikazio guztiz siplea. Interneten maiz eguneratzen diren edukiak argitaratzeko erabiltzen diren dokumentuetarako formatuen familia da.

**RT.** Aurrez beste erabiltzaile batek sortu zuen tuit bat berriro argitaratzea da.

**RETUIT.** Ikusi RT.

**RETWEET.** Ikusi RT.

**SIDEBAR.** Edozein web-orriren alboko zutabea.

**TAG.** Tarterik gabe (tarterikgabe) edo marratxo (tarterik-gabe) idatzitako hitz bat edo hitz batzuk dira, eta informazio bat edo multimedia-fitxategi bat deskribatzeko balio dute.

**TIMELINE.** Gure horma da, eta gure kontaktuen mezuak kronologikoki argitaratzen dira bertan. Batez ere Twitterri aplikatzen zaio. Facebooken gehiago erabiltzen da *horma* hitza.


**TUIT.** Twitter gizarte-sarean egiten den egoera-eguneratzeetako bakoitza.

**TWEET.** Ikusi TUIT

**URL.** Web-orriaren helbidea da, nabigatzailean idazten duguna.

**WIDGET.** Webgune, blog edo gizarte-sare batean txerta daitekeen edo deskarga daitekeen web-aplikazio bat da. Automatikoki eguneratuko den edukia partekatzeko balio du.

## Hasierako orrira





## I. eranskina: bibliografia

### Sarrera

- <http://www.flickr.com/photos/briansolis/3398531745>

#### Informazio gehiagorako:

- Social Networks:  
[http://es.wikipedia.org/wiki/Redes\\_Sociales](http://es.wikipedia.org/wiki/Redes_Sociales)
- Web 2.0:  
[http://es.wikipedia.org/wiki/Web\\_2.0](http://es.wikipedia.org/wiki/Web_2.0)
- Loretahur Online Social Networking Workshop:  
<http://loretahur.wikispaces.com/Redes+ Sociales>

### Lizentzia irekiak


#### Informazio gehiagorako:

- Creative Commons:  
<http://creativecommons.org/international/es/>
- Coloriuris:  
<http://www.coloriuris.net/>
- Introduction to Copyleft:  
[http://www.uca.es/recursos/doc/Unidades/Servicio\\_Extension/Observatorio/Revista\\_periferica/416059007\\_268201041313.pdf](http://www.uca.es/recursos/doc/Unidades/Servicio_Extension/Observatorio/Revista_periferica/416059007_268201041313.pdf)


### Twitter

#### Informazio gehiagorako:


- Twitter Course. Gipuzkoa Provincial Council:  
[http://cursotwitter.igipuzkoa.net/twitter\\_1.php?idioma=es](http://cursotwitter.igipuzkoa.net/twitter_1.php?idioma=es)



## Hasierako orrira



## II. eranskina: alta emateko eskaerak eta parte hartzeko tresna komunak



Tresna-mota	Bloga, wikia, foroa, newsletterra edo gizarte-sarea (Youtube, Flickr, Facebook, Twitter...)
Ekimenaren edo kanpainaren izena	Blog, foro, wiki edo newsletterren izena. Gizarte-sarearen kasuan, marka edo kanpaina, zerbitzu edo zuzendaritza eskatzailearen izena.
Saila, zuzendaritza eta zerbitzua	Zein da tresna eskatu duen saila (zuzendaritza edo zerbitzua)?
Arduraduna	Ekimenaren arduradunaren izen-abizenak.
Arduradunarekin harremanetan jartzeko datuak	Helbide elektronikoa eta telefono-zenbakia.
Ekimenaren deskribapena	1. Helburua: 2. Hartzailea edo hartzaileak: 3. Gaia: 4. Ekimenak izango dituen funtzio eta atalen deskribapen laburra.
Eskaera-data	


[www.euskadi.net](http://www.euskadi.net) atarian parte hartzeko ekimenetarako tresna komunak: Blogak, wikiak, foroak eta newsletterrak

Zer dira tresna hauek?

Bloga

«...aldian-aldian eguneratzen den webgune bat da. Egile baten edo gehiagoren testuak eta artikulak kronologikoki jasotzen ditu, eta lehenengo berriena agertzen da; egileak egoki deritzona argitaratuta uzteko askatasuna du beti.»

Iturria: wikipedia.org



## Wikia

«...web-nabigatzailearen bidez hainbat boluntariok edita ditzakete webgune horren orriak. Erabiltzaileek testu bera partekatzen dute, eta sortu, aldatu edo ezabatu egin dezakete. Testuek edo "wiki-orriek" izenburu bakarrak dituzte»

*Iturria: wikipedia.org*

## Foroa

»...webgune baten osagaiak dira, eta gunearen gairako garrantzitsua den informazioa partekatzen edo hari buruz eztabaidatzera gonbidatzen ditu erabiltzaileak, eztabaida aske eta informal baten bidez; hartara, interes komun baten inguruko komunitate bat sortzen da. Koordinatzaile edo dinamizatzaile batek moderatu ohi ditu eztabaidak; normalean gai bat aurkeztzen du, lehenengo galdera egiten du, bultzatu eta gidatu egiten du...»

*Iturria: wikipedia.org*

## Baina, zer desberdintasun dute foroek blogekin eta wikiekin alderatuta?

«... wikiekin alderatuta, ezin dira beste kide batzuen ekarpenak aldatu, baimen berezi batzuk eduki ezean, adibidez, moderatzaileek edo administratzaileek dituztenak.»

«...blogekin alderatuta, foroetan erabiltzaile ugariak har dezakete parte, eta eztabaidak habiaratuta daude, blogeko iruzkinen antzera. Gainera, oro har, foroek gai gehiago eta zabalagoak jorratu ohi dituzte, mota gehiagotako edukiak eduki ohi dituzte, eta erabiltzaile-mailan pertsonalizatzeko aukera ematen dute (ez jabe-mailan bakarrik).

*Iturria: wikipedia.org*

## Newsletter edo informazio-aldizkaria

«...aldizka banatzen den argitalpena da, oro har bere harpide-dunen intereseko gai nagusi bati buruzkoa.»

*Iturria: wikipedia.org*

## Tresnen ezaugarriak

### Estandarretan oinarritutako tresnak

- BLOGA (WordPress 3.0)
- WIKIA (MediaWiki)
- FOROA (PHPBB)
- Zerrenda (PHPList)

### Berehalakotasuna, malgutasuna eta autokudeaketa

Ekimenaren arduradunek:

- Laster izango dituzte tresnak (Web Zerbitzuak ekimena onartzen duenetik 24/48 ordura)
- Aukera beren beharretara egokitu dezakete (garapenak)
- Beraiek erabaki, planifika eta gauza dezakete egokitzapenen martxan jartzea (garapenak)

## Hasierako orrira



- Parte-hartzea kudeatzeko eredia zehaztu dezakete

Autokudeaketak esan nahi du ekimenak erantzukizun osoa hartu behar duela hauei dagokienez:

- Ingurunearen funtzionamendu egokia, egokitu ondoren
- Aukeraren egokitzapena (kode-bertsioak, pluginak...)
- Garapenak martxan jartzea eta probatzea
- EZ da laguntza tekniko edo funtzionalik emango produk-tuetarako

### Eskaera egiteko prozedura

1. Eskatzailea Web Zerbitzuarekin harremanetan jarriko da, ekimena jakinarazteko eta haren helburuak, hartzaileak eta gaia zehazteko.
2. Horrez gain, eskaera-inprimakia bete eta bidaliko dio Web Zerbitzuari (l. eranskina)..
3. Ekimena onartutakoan, EJI Eren Interneteko Proiektu Komunen taldearekin harremanetan jarriko da Web Zerbitzua, tresnan alta emateko.
4. 24/48 orduko epean, EJI Eren Interneteko Proiektu Komu-nen taldeak sarrera-datuak eta garatzaileentzako gidaliburu labur bat bidaliko dizkie eskatzaileari eta Web Zerbitzuari.

### Ekimenak onartzeko irizpideak


Web Zerbitzuak irizpide hauek erabiliko ditu eskatutako ekimena aztertzeko eta, hala badagokio, onartzeko:

- Zehaztutako helburuak parte hartzekoak eta/edo elkar-lanekoak dira (newsletteraren kasuan, helburu nagusia zabaltea da)
- Gai jakin batean parte hartzeko helburuak: gai zehatz bati buruzkoa al da parte-hartzea?
- Hartzailea/k: talde jakin batzuentzat al da ekimena?
- Funtzioak: nahi diren funtzioak eskatutako tresnarekin bat datoz?


### Diseinu-baldintzak, maketazioa eta estandarrak

- Euskadi.neten logotipoak goiburuaren eskuineko aldean egon behar du
- Txantiloiek (theme) W3Ck ezarritako estandarrak bete behar dituzte: XHTML eta CSS
- Txantiloiek (theme) web-irigarritasunaren WCAG 2.0 jarraibideen AA maila bete behar dute (hautatutako aplikazioaren izaeraren ondorioz zailtasunak badaude puntu honetan, Web Zerbitzuarekin ordezkotako aukerak aztertuko dira, edota eduki batzuetan araua ez aplikatzeko aukera)
- Irigarritasun-baldintzak ezagutzeko, kontsultatu Eusko Jaurlaritzaren Irigarritasuna Kudeatzeko eredu berria ([http://www.euskadi.net/r33-2288/es/contenidos/informacion/cabecera\\_accesibilidad/es\\_6144/adjuntos/ModeloGestionAccesibilidad.pdf](http://www.euskadi.net/r33-2288/es/contenidos/informacion/cabecera_accesibilidad/es_6144/adjuntos/ModeloGestionAccesibilidad.pdf)).

## Hasierako orrira



### III. eranskina: gizarte-sareetako irudi grafikoa



#### Hasierako orrira

Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzen-daritzza da Jauriaritzako saili, herri-baltzuei, erakunde autonomoei, zuzenbide pribatuko ente publikoei eta kanpaina edota komunikazio ekimenei, gizarte-sareetara egokitutako irudi korporatiboa errespetatuz, dagokien abatarak iristaraziko dizkien arduraduna.

Abatarak degradatu arin bat duen kolore bakarreko atzealdea izango du. Eusko Jauriaritzaren logotipoak, markak edo ezkutuak, beti zuriz, atzealde honen gainera egokituko dira.

Atzealdearen kolorea dagokion markak baldintzatuko du. Marka propiorik egon ezean, kolore egoki bat aukeratuko da.

Abatarren beheko atalean EUSK letrak barneratuko dira. Eusko Jauriaritza eta Euskadiri dagozkien letrak dira.

Facebookerako abatarren kasuan, Jauriaritzako sailen, herri-baltzuen, erakunde autonomoen, zuzenbide pribatuko ente publikoen eta kanpaina edota komunikazio ekimenen izenak ere barneratuko dira. Gainera, callibri tipografia erabiliko da horretarako.


Twitterreko atzealdea gris kolorekoa izango da, Eusko Jauriari-tzaren ezkutuaren ur-markarekin.

#### Adibideak::


Twitterrerako abatarak




Twitterrerako atzealdeak



Facebookerako abatarrak



Hasierako orrira



Gida elkarlaneko dokumentu bat da. Hobe dezagun denon artean:

- [irekia@ej-gv.es](mailto:irekia@ej-gv.es)
- <http://facebook.com/GobiernoVascolrekia>
- <http://twitter.com/irekia>

**Argitaraldia:**

1.a, 2011ko apirila

**Irudiak:**

© Aída García Corrales ([www.aidarte.blogspot.com](http://www.aidarte.blogspot.com)) 2011  
Eskubide guztiak erreserbatuta daude

**Internet:**

[www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

**Argitaratzailea:**

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

**Lege-oharra:**

Testuak Catalunyako Generalitatearen Sare sozialak erabiltzeko eta esparru horietarako estilo gidan oinarrituta daude, eta Creative Commons-en 3.0 aintzatespen lizentzia baten menpe daude. Baimenduta dago kopia, banatzea, ezagutzera ematea eta lan eratorri bat sortzeko eraldatzea, inolako mugarik gabe, baldin eta eskubideen titularra aipatzen bada: Gobierno Vasco - Eusko Jaurlaritza.

Hasierako orrira



**irekia**  
*Gobierno Abierto*